ttipi ttapa

397

2005eko maiatzaren 6a • XXV. urtea



## Harrobiari buruzko galdeketa Leitzan

04

Albiño inguruan harrobia egiteko asmoa dela eta, herri galdeketa eginen da maiatzaren 27an Leitzan. Galdera bakarra izanen da: «Leitzan harrobirik bai ala ez?».



## Mendi Maratoi Erdia Beran lehen aldiz

28

Apirilaren 17an lehen aldiz egin zen Berako Mendi Maratoi Erdia. 248 korrikalarien artean garaipena herrian gelditu zen, Fernando Etxegarai nagusitu baitzen.

03

ANTTON ESPELOSIN

# Ramon Latasa handiari buruzko liburua idatzi du



MUEBLES AMETS



larunbat arratsaldetan irekia

4000 m² erakusketa

**Sarrera BERAtik da**

*Sastrin karrika,*
*3.2 - 3.4 Alkaiaga*

**31789 LESAKA**

*Tfnoa. 948 630 537*
*Fax. 948 631 443*

BISITATU GURE WEB ORRIA
**www.mueblesamets.com**









# BERAKO UDAL MUSIKA ESKOLA

## pentsatu gabe... anima zaitez!

ORDAINTZEKO ERREXTASUNAK HILABETEKO KUOTATAN

- 3 - 7 URTEAK HAURRENTZAKO TALDETXOAK
- HELDUENTZAKO BAKARKAko ETA TALDEKO KLASEAK
- "KULTURA MUSIKALA" HELDUENTZAKO

DATORREN KURTSOAN
ULERTUKO DUZUE MUSIKA KLASIKAREN HIZTEGIA

Argibideak eta matrikula:
"Isidoro Fagoaga" Udal Musika Eskola
Legia, 26 • 31780 Bera
Telefonoa eta faxa: 948 631205
Ordutegia: Egunero 16:00etatik 19:00etara

**Matrikulazio epea: apirilaren 18tik maiatzaren 13ra**





## DATUAK...

• Antton Espelosin sunbildarrak «Ramon Latasa: Basoko aizkolaria» izeneko liburua argitara eman du.

• Salmentekin lortzen den dirua, Sunbillan aizkolariaren izena izanen duen plazan eskultura bat jartzeko erabiliko da.

• Latasa herriak izan duen kirolaririk onena izan dela uste du Antton Espelosinek eta ongi iruditzen zaio plazari bere izena ematea: «Denak konforme dira, ez dut inor horren kontra somatu!».



Argazkia: Joseba OLAGARAI

**Antton ESPELOSIN** *Liburuaren idazlea*

# «Aizkoran aritzeko dohain bereziak zituen fenomeno bat izan zen Latasa»

Joseba OLAGARAI

**Zerk bulzatu zaitu gisa honetako liburu mardula egitera?**

Sunbillan kirolari handi bat izan genuen, Ramon Latasa, herriaren izena zabaldu zuena. Beretaz oroitzen garela erakusteko, bere bizimodua eta aizkorarekin egin zituen balentriak agertzeko liburu batean kontatzea gogoratu zitzaidan. Gazteek ez dute haren berri eta liburu honekin jakinen dute nor zen Ramon Latasa.

**Zer kontatzen du liburu honek?**

Lehenbiziko bere bizia kontatzen dut eta gero, aizkolari handiek Latasari buruz eman duten iritzia bildu dut, Mindegia, Arria II eta Patxi Astibiaren iritziak. Azkenik, Latasak jokatu zituen apostu eta txapelketei buruzko informazioa biltzen da, berak zortzi txapelketetan eta hamabortz apostuetan hartu zuen parte. Dena, noski, argazkiekin hornitua.

**Hoberena liburua erostea izanen da, baina Latasari gertatutako bitxikeriren bat kontatzen ahal duzu?**

Bere bizitzan sufritzea tokatu zitzaiola aipatuko nuke. Familia xumekoa zen, gaztetan kontrabandoan aritu zen bertze hainbertze bezala. Kontrabandoan ari zela, istripu bat izan zuen momenturik onenean zegoenean, aizkoran kontrariorik ez zuenean. Guardiazibilek alto eman eta ihesi abiatu zenean tiroa eman zioten izterrean. Asegururik ez zuenez, klinikan egon zen denbora aunitz ordaintzea tokatu zitzaion. Gero, aizkoran zuen abilidadea aipatuko nuke. Apostu baten gibeletik zela, korredoreek dirua bere kontra kantatzen zuten eta berak aizkora utzi eta bere alde apostu egin omen zuen. Oraindik ere korredoreek kontra kantatzen eta bigarren aldiz bere alde apostu egin zuen, orduan hasi omen zen aizkoran, kristoren erakustaldia egin eta proba eta apostuak irabazi zituen. Horrelako aunitz ditu kontatzeko!

> «Leitzako Miguel Zabaletak eskuratu zizkidan datu aunitz. 78 urte ditu eta Latasarekin aunitz ibilia, apostuetan eta. Harritu nintzen haren memoriarekin!»

**Liburua osatzeko dokumentazio lan handia egin duzu, bai testuak idazteko baita argazkiak lortzeko ere. Nola moldatu zara?**

Liburu hau edozein idazlek hobe eginen luke, baina nire burua ikusten dut liburua hartu eta aspertzen naizela, argazkirik ez badu. Argazkiak banituen, baina apostu guzietakoak lortu nahi nituen eta hor barna galdetuz bildu ditut, Donostiako Fototekan ere bai. Hor joan da lanik gehiena. Gero, Leitzako Miguel Zabaletak eskuratu zizkidan datu aunitz. 78 urte ditu eta Latasarekin aunitz ibilia, apostuetan eta. Harritu nintzen haren memoriarekin! Donostiako Koldo Mitxelena artxiboan ere begiratu nituen lehengo egunkariak, Basarriren artikuluak.

**Latasari buruz aunitz ikasi izanen duzu... Nolakoa zen?**

Fenomeno bat! Guttitan ateratzen da horrelako aizkolari bat, dohain bereziak zituen. Luxiaren kontrako apostuan erakutsi zuen bere abilidadea. Baina inor ez da perfektua eta igual burua ez zuen behar haina erabili, gehiago erakuts zezakeen. Gero, bazterretik ere dominatu zuten pixka bat.






**ARGAZKI-MUNTAIA:**
Argazki hauek ikusten ziren herri-kontsulta egitea eskatzeko erabili ziren karteletan. Beheko argazki-muntaiaren bitartez ilustratzen zuten nolako itxura hartuko lukeen inguru horrek Albiñoko magalean harrobia egitea erabakiko balitz.

### MAIATZAREN 22AN HERRI-KONTSULTA IZANEN DUTE LEITZAN

# Harrobirik baimendu edo ez erabakitzeko, erreferendumaren emaitza begiratuko da

**Leitzarren esku dago etorkizunean Leitzan harrobirik egitea edo ez. Izan ere, maiatzaren 22ko erreferendumaren emaitzari begiratuko baitio Leitzako Udalak hur-komunaletan Convial enpresak egin nahi duen harrobiari ustiapen-baimena eman edo ez erabakitzeko.**

J. IRIGOIEN

Ezkurrako gainetik Goizueta aldera abiatuta 2 kilometrora, Leitzako Gorriztaran auzoko azken baserrien inguruan, ofita ateratzeko harrobia egin nahi du Convial enpresak. «*Trenbideetan balasto gisa eta errepideetako asfaltoari gogortasuna emateko*» erabiltzen den materiala da ofita. Proiektu honen lehenbiziko arrastoa 1992koa da. Garai hartan agertu zion udalari Convialek (Construcciones Azpiroz y Saralegui bazkide da) Albiñoko harrobia egiteko asmoa, eta orduan abiatu zen proiektu honen tramitazio administratiboa Nafarroako Gobernuko Industria eta Ingurumen Departamentuetan.

Alabaina, Leitzako dermioan harrobi gehiago egiteko asmoak daudela zabaldu izan da, eta horregatik galdetuko da generikoki *«Leitzan harrobirik bai ala ez?»*

### Lur komunala da (%74a) Albiñokoak hartuko lukeen zatirik handiena

Printzipioz, harrobia 15 urtez ustiatzeko baimena eskatzen dio Convialek Udalari. Urte horietan, harrobiak 72.000 m²-ko eremua hartuko luke. Eremu horren zatirik handiena (%74a) lur komunala da, eta gainerakoa jabego pribatukoa.

Hori dela-eta, 2003ko azaroan bi aukera proposatu zizkion Convialek Udalari: batetik lur-trukea egitea (1995ean proposatu bezalaxe), edo bestela, lur-trukea onartzeko udalbatzaren bi-hereneko adostasuna ez baldin bada posible, lur-komunalari probetxua ateratzeko baimena ematea, eta trukean enpresak diru-kopuru bat ordainduko lioke herriari. Bigarren aukera honek, nahikoa du udalbatzaren gehiengo sinplea onartua izateko.

### Harrobiak 63 urteko bizitza izanen luke

Udalari aurkeztu zaion proiektuaren arabera, harrobiaren probetxamenduak hasiera batean iraunen lukeen 15 urte horietan, 1.200.000 m³ material aterako ziren. Kopuru horretan oinarritzuz, eta enpresak adierazitako lan-erritmoak kontuan hartuta, *«egun bakoitzeko 24 kamioi inguru aterako ziren»* adituen ustez. Hala ere, inguru horretan dagoen ofita kopurua kontuan hartzen baldin bada, harrobiaren bizitza 63 urtez luzatuko litzateke Convialeko datuen arabera.

### 1.800 Kg. lehergairen eztanda hilabetean behin

Leherketa bidezko ustiapen sistema erabiliko litzateke Albiñoko harrobian, eta proiektuan ageri den lan erritmoari kasu eginez, hilabetean behin 1.800 Kg. baino gehiago eztandarazi beharko ziren.

### Enpresak dio lanpostuak eta Udalarentzat diru-sarrerak sortuko direla

Bi arrazoi horiek erabiltzen ditu enpresak proiektuaren alde positiboak azpimarratzeko. Aipagarria da, halere, Convialek 2003an eskaera berresten dioenean Udalari, ez duela zehazten zenbat lanpostu sortuko diren eta udalari zenbateko diru-sarrerak ekarriko dizkion.

## ALDERDIEN POSIZIONAMENDUAK

# UPN galdeketa egitearen kontra agertu da beti, eta Aralar, Larrain eta EAk herritarren iritzia jakin nahi dute




Herri-kontsulta egin edo ez egin erabakitzerakoan, kontrako bi jarrera agertu izandu dira. Lehen eta orain, UPN herri-kontsulta egitearen kontra agertu da beti, gaia erabakitzea *«udalari dagokiola»* argudiatuz. Bestetik, Herri-kontsultaren aldeko Talde Sustatzailearekin bat egin dute gainerako alderdi guztiek. Azkenean, auzi hori 2004ko irailaren 10ean argitu zen, Aralar eta EAren aldeko botoekin. Larrain ere galdeketa egitearen alde agertu zen.

UPNko Silvestre Zubiturrek dioenez, gaia *«Udalak berak erabaki beharko zuen, hori delako bere lana eta horretarako eman duelako botoa jendeak»*. Hala ere, galdeketari buruz Zubiturrek ez du argitu nahi izan zein izanen den UPNren posizionamendua, herri-kontsultan ez parte-hartzea eskatuko dieten jendeari, edo argi eta garbi Leitzan harrobiak egitearen aldeko botoa eskatuko duten.

Herri-kontsultako galderari ezezko botoa eskatu dutenen artean daude Aralar, Larrain eta Herri-kontsultaren aldeko Talde Sustatzailea. Hauen iritziz Albiñoko proiektuak *«berebiziko eragina izanen luke harrobia kokatuko den inguruan»* eta baita *«herrian bizi direnen bizimoduan ere (lehergaien garraioa, eztandak, kamaioiak herrian barrena…)…»*

Azkenik, Juanjo Lazkanok, Eusko Alkartasunako zerrendaburuak, ez digu jakinarazi bere alderdiak zein posizionamendu hartuko duen.

### Maiatzaren 22an botoa eman ezin dutenek, aurreko 7 egunetan eman dezakete Iruñean

Herri mailako erreferendum honetan ez da izanen botoa postaz emateko aukerarik. Hala ere, maiatzaren 22an norbaitek ez balu botoa ematera joateko modurik, aurreko zazpi egunetan (maiatzaren 15etik 21era) Iruñeko Hauteskunde Batzordean izanen du aukera.

## *Tekniko eta herritarrek bultzatuta abiatu da erreferendum-prozesua*

Udalerri mailako herri-kontsultak erregulatzen dituen 27/2002 Foru Legean ageri diren pausoak segituz bideratu da, azkenean, Leitzarren aspaldiko nahia. Izan ere, 1996an herri-kontsulta egitearen aldeko 1.081 sinadura bildu ziren etxez etxe, eta HB eta EAren aldeko botoekin erreferenduma egitea proposatu zen udalbatzarrean. Egitasmoak, ordea, ez zuen aurrera egin.

Joan den urte hasieran *«Convialen egitasmoak berpiztu zirela ikusita»* abiatu zen salakera berria. Baserritar, ingenieri, ingurugiro-teknikari, geologo eta hainbat herritar biltzen dituen talde heterogeneoa osatu zen formalki, eta herri-kontsulta egitearen aldeko sinadura-bilketa egin nahi zuela adierazi zion Udalari. Legeak markatzen duen prozedurari jarraituz, Leitzan erroldatutako 18 urtez gorako 442 sinadura bildu ziren udal-idazkaritzan.

Joan den urteko irailean, Aralar eta EAren aldeko botoekin (Larrain Herri Plataforma ere alde zegoen) kontsulta egitea onartu zen *«Leitzan harrobirik bai ala ez?»* galdetuz.

2005eko martxoaren 11n Espainiako Ministroen Kontseiluak baimena eman zuen, eta udalak, maiatzaren 22rako markatu du hitzordua.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada:** 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.info
info@ttipi.net

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.
**Presidentea:** Pello Apezetxea.
**Kudeatzailea:** Josemanuel Irigoien.
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.
**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.
**Administrazioa:** Amaia Goia.
**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxeniko, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Iraizoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Irabe Kontsumitzaileen Elkartea...
**Imprimategia:** Gertu.
**Erakunde laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 28 € |
| Espainia | 28 € |
| Ipar Euskal Herria | 40 € |
| Europa | 40 € |
| Amerika | 108 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza | 23 € |

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Kontu zikinak Lesakako Udalean

Hizkuntza eskubideen urraketa, hizkuntza politika inboluzionista, euskara eta euskaldunekiko diskriminazioa... Nafarroako Gobernuarekin eta UPNrekin lotzen ditugun kontzeptuak dira.
Artikulu honetan, baina, ikusiko duzue ez dagoela desberdintasun handirik UPN eta PNV/EAren artean, zehazki batak gobernuan eta bertzeak Lesakako Udalean daramaten hizkuntza politikari errepaaratzen badiogu.
Itxuraz euskaltzale ageri zaizkigu, Nafarroako Parlamentuan hizkuntza politikari buruzko ponentzia eztabaidatzerakoan, Udalbidetik ikastolei diru laguntzak banatzerakoan, Nafarroako Gobernuak euskararen aurka hartzen dituen neurriak salatzerakoan... baina hori guztia itxura bertzerik ez da.

**Idazkari eta kontu hartzaileak hautatzeko prozedura**
Nafarroako Gobernuak toki entitateetako idazkari eta kontu hartzaileak hautatzeko prozedura berezia ireki du. Eta toki entitateen esku utzi du lanpostu horietan euskaraz jakitea nahitaezkoa izanen den erabakitzea. Eskatu beharreko euskara mailari dagokionez, zera dio: "Toki entitateek ez badute adierazten zer euskara maila hartu behar den kontuan lehiaketak ebazterakoan, Hizkuntza Eskola Ofizial bateko goreneko maila edo ofizialki horren baliokidea den titulazioa izanen da eskatu beharrekoa".
2004ko uztailaren 5ean egindako bileran, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Batzorde Erabakitzaileak —PNV/EAko Lesakako udal ordezkaria barne—, aho batez onetsi zuen Nafarroako Gobernuari eskatzea EGA edo baliokidea izan zezatela lanpostu hori beteko zutenek; edo, bestela, maila bereko proba bat gainditu izatea. Lesakako alkateak ere hala zioen 303/2004 ebazpenean.

**Maila jaitsi egin dute**
Prozedura hau Nafarroako Gobernuak foru komunitateko hainbat toki entitatetarako ireki du, eta hutsik dauden idazkari eta kontu hartzaileen lanpostu andana bat betetzeko balio izanen du. Horretarako oposizio-lehiaketa murriztu bat antolatu dute.
Hortaz, prozedura garbia izanen balitz, lanpostu horiek lehiaketa-oposizioa gaindituko lukeen edozein izangaik eskura lezakeela pentsatu beharko genuke.
Lehen erran dugun bezala, behingoz bederen lege eta arau guztiak udalen alde daude idazkari eta kontu hartzaileen kasuan EGAren maila eskatzeko.
Bada, ez. Lesakako Udalean maila jaitsi egin dute. Oraingo idazkariari neurriko zapata egin diote. 203/2001 Foru Dekretuan oinarrituta, Lesakako idazkari eta kontu hartzaile izateko 1. jakite maila (hau da, hizkuntza eskola ofizial bateko 4. maila mintzamenerako, eta 3. maila idazmenerako) nahikoa izanen dela erabaki dute, PNV/EAko taldekideen sei bozkekin, eta Onin Udal Taldearen aurkako 5 bozkekin.
Hortaz, lanpostua oraingo idazkariak atera ez edo ez (apustu baietz), gerta liteke Lesakako Udalera berriz ere euskara maila nahikoa ez duen langile bat etortzea, baina oraingoan funtzionario izateko.

**Bertze langileekiko diskriminazioa eta errespetu falta**
Guk dakigula, orain udalean ari den kontu hartzaileak bere lanean aritzeko behar den euskara maila badu, eta etengabe ari da bere maila hobetzeko antolatzen diren ikastaroetan parte hartzen. Hortaz, idazkariarena estaltzeko kontu hartzailearen kasuan ere maila jaitsita, oraingo langileak lanpostua eskuratzeko zailtasun gehiago izanen ditu. Izan ere, kontu hartzaile lanpostua eskuratu ahal izanen dute EGA dutenek, baina baita 1. jakite maila dutenek ere.
Horrez gain, lanpostua berriz ere bere lana euskaraz egiteko gai ez den idazkari batekin betetzen bada, administrari batek jarraitu beharko du haren idatziak (aktak, erraterako) euskarara itzultzen.
Are gehiago, berriki Lesakako Udalak administrari lanpostu baterako deialdia egin du, eta EGA maila eskatu du. Hau da, A eta B mailako lanpostuetan (idazkari eta kontu hartzailea hala dira) 1. jakite maila nahikoa da, eta C eta D mailako lanpostuetan EGA eskatzen dute. Tori bertze adibide bat, nahi baduzue: duela hilabete kontu hartzailea aldi baterako ordezkatzeko (lau bat hilabeterako) probak egin dira, eta horretan ere EGA maila eskatu dute. Ulergaitza.

**Bertendona, nafar erara**
Hasieran erran bezala, orain idazkari lanetan ari den langilea 1995az geroztik dago Lesakako Udalean. Orduan ere euskarari tratamendu duinagoa eman ziezaiokeen udalak, baina idazkari lanposturako euskaraz jakitea baloratu bakarrik egin zuten.
Geroztik idazkariak deus gutxi egin du bere euskara maila hobetzeko, nahiz eta aukerak izan dituen, bertze langileek bezala: euskara ikastaroak doan egin zitzakeen, lan ordutegian, ordezko idazkariarekin..., gastu guztiak zeinek eta Nafarroako Gobernuak ordainduta!!
Kasu honekin gogora datorkigu azken hilabeteotan komunikabideetan ikusi duguna: EAEko hainbat irakasle Bertendona ikastetxean itxialdian, behar zuten euskara maila eskuratu ez, eta Eusko Jaurlaritzak kanporatu behar dituelakoz. Kasu berbera da Lesakakoa, baina itxialdirik ez da izan.
Alderdiek zerbait eginen ote duten galdetzen diogu geure buruari. Segur aski, ohi denez, udaletan hartzen diren erabakiak errespetatu eginen dituzte, eta ixiltasuna nagusituko da.
Erabakia hartzeko legeetan oinarritu omen dira; hori ez dugu eztabaidatuko. Baina denok dakigu neurri murriztailea hartu dutela euskararentzat eta euskaldunontzat. Haien esku zegoen euskarari eta euskaldunon hizkuntza eskubideei tratamendu duinago bat ematea. Urrats bat aitzinera egitea erabaki zezaketen —hori ere legezkoa izanen litzateke—, baina kontzienteki erabaki dute urratsa gibelera egitea.
Guretzat euskararen defentsan aritzeko zeukaten legitimitate apurra galdu egin dute.

**Lesakako Euskara Batzordea.**

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Navarra 2005-04-18

*«Alkate izateak duen gauzarik onena? herria mugitzeko ilusioa, geldirik egon ez dadin. Txarrena, berriz, bizilagunekin nahitaez izan behar dituzun ikamikak eta haserreak. Alkatea zara eguneko 24 ordutan eta gaiak komentatzen dizkizute ostatuan, kalean, larunbatean eta igandean, edo etxera joaten dira. Denok elkar ezagutzen dugu eta zaila da, baina ahalik eta hobekien egiten saiatzen gara».*

Jon Mikel ARAGON
Zubietako alkatea
D.Navarra 2005-04-18

*«Itsasoa margotzean beldur nion, karipoko paisaia baitzen niretzat, ez nere ingurukoa behinipein. Bezero batek hor sartu eta koadro bat margotzea eskatu zidan arte. Hainbertze gustatu zenez, beldurra galdu nion. Nafarroa hegoaldean ere ausartu naiz, bardeetan. Kolore-paleta aldatuta zenbat gozatzen den ikasi dut, leku bakoitzak dituen koloretan murgilduta. Eta Nafarroan halako aberastasuna daukagu!».*

Juan Carlos PIKABEA
Lesakako margolaria
D.Navarra 2005-04-18

## • 11 GALDERA LABUR •

**Edari bat prestatzeko eta beste bat edateko?**
Prestatzeko zerbeza botilan eta edateko whisky Red Bullekin.

**Besta taldearekin, txarangarekin edo ostatuan lanean ?**
Nahiago dut libre egon, baina tragoak doan ere ez dira gaizki etortzen.

**Barra atzean ligatzeko metodorik onena?**
Ez dakit, ez dut behin ere barra atzean ligatu.

**Besta on bat edo Athletiken partidu on bat?**
Besta on bat Athletiken partidu on bat ikusten.

**Neskekin ere "Lehoi" bat al zara?**
Eskale bat gehiago ematen dut lehoi bat baino.

**Ze zerbitzatuko zenioke Karpineri?**
Zuritillo bat, hori bai, bikoitza kobratuta.

**Aste bat Dantxarinean (Xaretan), beste bat Beran (Ikuilun) non sentitzen zara gustorago?**
Segun eta non dagoen besta eta alkohola nola igotzen den burura.

**Egia al da mozkorrek beti egia erraten dutela?**
Nik uste baietz, baina hobe datorkit ezetz erratea.

**Bidaiatzeko leku bat?**
Eskozia, whisky-aren sortzaileak.

**Besta egiteko leku bat?**
Salamanka edo Moreren kontzertu batean.

**Non eman duzu zure kontzerturik onena?**
Berako bestetan "jejeje".



**Aitor LASAGA**
*Ikuilu eta Xaretako nagusia, More-ko gitarra eta txarangero-ohia*


Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

BORTZIRIAK

# Emakumeei buruz egindako ikerketaren emaitzak ezagutzera eman dira

## 400 emakumeri inkesta egin die Soziologia Lantegiak



Argazkia: [illegible] OLAGARAI

**Soziologia Lantegiko Carlos Vilchesek Berako Kultur Etxean eman zuen ikerketaren emaitzen berri apirilaren 18an.**

ttipi-ttapa

Apirilaren 18an eman ziren jakitera Berako Kultur Etxean Soziologia Lantegia enpresak Bortzirietako gizarte zerbitzuen eskariz 400 emakumeri egindako inkestaren emaitzak. Ikerketaren zuzendaritza eta analisia egin duen Carlos Vilches soziologoak eman zuen datuen berri Kultur Etxean, bertara hurbildutakoei.

Bortzirietan, 2001eko azken erroldaren arabera, 16 urtetik goitiko 3.453 emakume daude eta honetatik 400eri egin zaie elkarrizketa, etxez etxe. Ikerketa honetan parte hartu duten emakumeen banaz bertzeko adina 44,6 urtekoa da eta erdia baino gehiago ezkondurik dago. 30 urtez beheitiko emakumeen %71,3a ezkondu gabe dago. Emakume guztien herenak etxetik kanpo egiten du lan, gehienak kontratu finkoarekin eta %19,2a behin behineko kontratuarekin. Bortzirietako emakumeen lanpostuen %82,7a zerbitzu pertsonalak, ostalaritza eta komertzio arlokoak dira. Emakume gehientsuenek ez dute pertsona zaharrik, haurrik edo minusbaliaturik bere kargura eta ez dute beretzat inolako zainketa edo laguntza berezirik behar. Inguruko emakume gehienek telebista ikusten, paseatzen eta lagunekin ematen dute beren aisialdia. Bertzalde, udalek emakumeentzako jarduerarik antolatzen ez dutela, edo ez aski, erraten dute.

Bortzirietako emakume gehientsuenek eskualdean bizitzen segitzeko asmoa dute. %8,5ak bakarrik erran zuen bere udalerritik ateratzeko gogoa edo arrazoiren bat zuela. 30 urte baino gutxiagokoetan eta Beran bizi direnetan agertzen dira Bortzirietatik kanpo hainbat herrietara bizitzera joateko ideia duten emakumeak biltzen dituzten ehunekorik handienak. Inkestaturikoen %70,5aren aburuz emakumeentzat ez dago aukera berdintasunik Bortzirietako herrietan; familiaren eremuari buruzko balorazioa, berriz, bertzelakoa da: %61,7aren iritziz, bi generoek egoera berdina eta aukera berberak dituzte. Gehiengo handi bat, %84,3, ados dago etorkizunean eskualdeko gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunerako plan bat gauzatzearekin.

### Ginekologia eta familia planifikazio zerbitzua

Emakumeen %96ak eskualdean ginekologia zerbitzua izatea eskatzen du eta %93a familia planifikazioa zerbitzua jartzearen alde dago. Osasun arloan ongi zainduak sentitzen ote diren galdetutakoan, emakumeen %2,8ak "hagitz ongi" erantzun zuen, %45,5ak "ongi", %32,5ak "erdizka", %13,3ak "gaizki" eta %3,8ak "hagitz gaizki".

Ikerketaren arabera, jubilatuen egoitza da eskualdeko zerbitzu eta erakundeen artean banaz bertzeko puntuaziorik onena lortu duena, 7,2. Ondotik Osasun Zentroak 5,9 eskuratu du eta herriko elkarteek 5,7. Udaletxeek hartu dute puntuaziorik eskasena, 5,2koa. Bortzirietako emakumeei eragiten dien arazorik nagusiena langabeziarena da, galdetutakoen %38,5ak hori erantzun baitu. Ondotik etorriko lirateke garraioa (%20,5), eskualdean ginekologia eta familia planifikazio zerbitzurik ez izatea (%17,3) eta etxebizitza eskuragarririk ez izatea (%15,3).









BERA

# Bortzirietako IKA euskaltegiaren 15. urteurrena kontzertu batekin ospatuko da

## Hainbat musikari talde eta bakarlari izanen dira maiatzaren 14an Kultur Etxean

Amaia eta Ainhoa

Bortzirietako IKA Euskaltegiak 15 urte bete ditu eta bere egoera ez da batere xamurra: urte guzti hauetan Bortzirietako jendeari euskara erakusteko ahalegin guztiak egin ondotik, Nafarroako Gobernuak hirutik batera jaitsi du euskara ikasteko dirulaguntza. Hala ere, datorren maiatzaren 14an, larunbatean, IKAren 15. urteurrena ospatzeko kontzertu handia antolatu du Bortzirietako Euskaltegiak Berako Kultur Batzordearen laguntzarekin. Berako Kultur Etxean 20:00etatik aintzinerat eta 5 euroren truke, Xavier Montoia, Petti, Morau, Joseba Irazoki, Gaizka Sarasola eta Xabier Erkizia, Ameba taldeko Mikel eta Joseba eta Edu Zelaieta, Raul Garzia eta Beñardo Goietxe "Mugaldekoak" ikusi eta aditzeko aukera izanen dugu.



Argazkia: Joseba OLAGARAI

### "Klik"a argazki rallyaren erakusketa

**Joan den apirilaren 23an Ricardo Baroja Eskola Publikoko Guraso Elkarteak antolatutako haurrentzako argazki rallya egin zen. Goiz guzian eskola ezberdinetako haurrak egon ziren herriko txokoetan argazkiak ateratzen eta argazki guztiak Berako Ttikien "Klik"a Argazki Rallyaren erakusketan ikusi ahal izanen dira. Kultur Etxeko ateak maiatzaren 9tik 20ra astelehenetik ortziralera 18:00etatik 20:00etara irekiak izanen dira.**

### *Maiatzean ospatuko da XI. Mugaz Gain Antzerki Jaialdia*

Mugaz Gain Antzerki Jaialdiaren XI. edizioa maiatzean ospatuko da eta bi astetan bina egun hartuko ditu aurreko urtetan bezala: maiatzaren 5 eta 6an lehenengo astean eta bigarrenean, maiatzaren 18 eta 19an. Mugaz Gain jaialdia haur eta gazteen topaleku bihurtu da, bertako eta inguruko antzeslanen erakusleiho. Iruña, Etxarri, Orereta, Urruña eta Berako haurrak ariko dira antzerki lanetan eta egitaraua honako hau izanen da: Lehenengo egunean, Iruñako Iturrama Institutukoek "Bulegokeriak" lana eskainiko dute 11:30etan eta 13:30etan "Izen Gabekoa" Etxarriko Andra Mari Ikastolakoek. Hurrengo egunean, maiatzaren 6an, 11:00tan Orereta ko Langaitz Insitutuaren "Zubi gizakiak" ikusi ahal izanen dute haurrek eta 13.00etatik aintzinera Berako Toki Onakoek lehenik "Una excursión de muerte" eskainiko dute eta ondoren Berako Ezberdinak taldekoek "Hauek bai, eguberri zoroak!". 18.00etatik aintzinera ateak zabalik tartea izanen da beratarrek goizeko antzezlanak errepikatuko dituzte. Maiatzaren 18an Berako Ricardo Baroja eta Labiaga Ikastolako haurrak arituko dira eta 19an Jesusen Bihotza, Ricardo Baroja eta Urruñako Ikastolakoak. Bi egun hauetan 18:00etan ateak zabalik izanen dira nahi duenak hurbildu ahal izanik.

### *Escena Dantza Jaialdia*

Azken urtetan egin den bezalaxe, aurtengoan ere Berako Kultur Batzordearen eskutik Escena Dantza Jaialdia ikusi ahal izanen dugu. Oraingoan Carmen Rocheren balleta etorriko da eta Romeo eta Julieta ikuskizuna eskainiko du. Larunbat honetan, maiatzaren 7an izanen da Kultur Etxean 20:00etan eta sarrera 3 euro kostako da.

### *Bestetako egitarauaren azal lehiaketa*

Maiatzaren 20ko 13:30ak baino lehen aurkeztu beharko dira San Esteban bestetako egitarauaren azalerako lanak. 18x24 cm.ko formatu bertikala izanen dute eta azalak Berako besta giroa islatuko du. Sari bakarra izanen da, 300 eurokoa.









LESAKA

# Idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak betetzeko euskara maila jautsi du Udalak

## Euskara Batzordearen ustez «oraingo idazkariari neurriko zapata egin dio PNV-EAk»

Aitor AROTZENA

Lesakako Euskara batzordeak, herriko bertze hainbat eragilerekin batera, agerraldi publikoa egin zuen apirilaren 22an, Kasinoan. Lesakako Udalak, idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuei hizkuntza eskakizun maila jaitsi die, PNV-EAko zinegotzien botuekin eta horretarako plantilla organikoa aldatu du. Orain eskatzen den maila ez da aski lanpostu horietan euskaraz aritzeko, Lesakako Euskara Batzordearen erranetan eta gisa honetara, ez da ziurtatuko lanpostu horietan ariko direnek euren zeregina euskaraz egiteko gai izatea. Erabaki honen inguruan hainbat gertaera izan dira, eta horiek gizarteratu nahi izan zituen Lesakako Euskara Batzordeak prentsaurrekoan.

Igor Portu, Lesakako Euskara Batzordeko kideak adierazi zuenez, erabaki hau, udal funtzionamendua euskalduntzeko egin beharreko bidean atzerapauso nabarmena da: *«Nola da posible euskaraz jakitea nahitaezkoa den lanpostu baterako, euskara gaitasuna egiaztatuko duen maila ez eskatzea?»*.

Deñe Abuin, Onin udal taldeko ordezkariaren ustez, erabaki hau okerra da, eta bertze langileekiko diskriminazioa eta errespetu falta erakusten du. Zinegotziaren ustez, *«Lesakako Udala irizpide ezberdinak erabiltzen ari da, komeni zaionaren arabera. Orain urrats bat aitzinera egitea erabaki zezaketen, baina kontzienteki erabaki dute urratsa gibelera egitea. Oraingo idazkaria gelditzea interesatzen zaie, auskalo zergatik»*.

Andoni Sarasola, Herria Aitzinera plataformako kideak ere udalaren erabakia kritikatu zuen, UPN eta PNV-EAren artean ez dagoela ezberdintasun handiegierik erranez, *«zehazki batek gobernuan eta bertzeak Lesakako udalean daramaten hizkuntza politikari errepa ratuz»*.

Ondoren, Patxiku Irisarri, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakariordeak hartu zuen hitza eta erabaki honek, *«Bortzirietako Euskara Mankomunitateak udal funtzionamendua euskaldutzeko adosturiko irizpideei trufa»* egiten diela erran zuen. Erabaki honen aurkako helegitea paratuko dutela ere jakinarazi zuen.

Josune Etxepare, Euskal Herrian Euskaraz taldeko ordezkariak, azkenik, euskararen kontrako erabaki honi tamainako erantzuna eman behar zaiola aipatu zuen. Bere erranetan, *«orain idazkari dagoen langileak hamar urte ditu Lesakako udalean eta deus gutti egin du bere euskara maila hobetzeko»*.



ZUBIETA

**Euskara Batzordea eta herriko hainbat eragile agertu ziren idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuen hizkuntza eskakizun maila jaisteko erabakia dela eta.**

### *Musika Banden II. Alardea*

Larunbat honetan, maiatzak 7, Musika Banden bigarren alardea eginen da. 18:00etan, parte hartuko duten musika bandei ongietorria emateko aurreskua eskainiko zaie Plaza Zaharrean. Ondotik, bandek kalejira eginen dute herrian barna eta 19:30etan kontzertua eskainiko dute Plaza Zaharrean. Ez da hau izanen maiatzean musikarekin lotutako ekitaldi bakarra. Maiatzaren 20an, ortziralarekin, Salbador Madariagak zuzendutako akordeoi bandak kontzertua eskainiko du Alhondigan 20:00etan. Maiatzaren 29an, igandean, Irungo kontserbatorioko akordeoi bandak kontzertua eskainiko du Alhondigan 13:00etan.

### *Clown antzerki ikastaroa*

Ramon Albistur eta Esther Carrizok gidatzen duten Uharte erakundeak sei asteburuko clown antzerki zikloa antolatu du. Hamabi orduko tailer lana eginen da Matxinbeltzenean. Informazio gehiagorako 012ra deitu.









ETXALAR

# Gasoila salduko dute Usoa kooperatiban kotxeentzako eta berogailuentzako

## Proiektua martxan da dagoenekoz eta urte honetan akabatzea espero dute

**Joseba eta Nerea**

Apirilaren 23an egin zuen Usoa kooperatibak urteroko batzarra Kultur Etxean. Solastu ziren gaien artean iazko kontuak onartzea, aurtengo aurrekontua eta nobedade gisa, gasolinera baten proiektua egon ziren. Arantxa Zubieta lehendakariak erran digunez, 2005. urte honetarako gasoleo A (kotxearentzat) eta B (kalefakzioarentzat) emanen dituen hornidura-unitate bat paratu nahi dute. Dagoenekoz lanean ari dira eta urte honetan akabatzea espero dute. Bertzalde, pentsua eta gasolina banatzeko kamioneta erosi dute, orain arte Jesus Mari Gortari "Obenek" egiten zuen lana beren gain hartuz. Batzarra akabatzeko, afaria izan zuten Anttonion eta 32 lagun bildu ziren.



Ainara

### *Puntu Teknologikoan WI-FI sistema*

**Kultur Etxean Puntu Teknologikoa paratu zutenetik hainbat berrikuntza eta hobekuntza egiten joan dira eta orain WI-FI sistema instalatuko dute hurrengo egunetarako. Modu honetan, edozein erabiltzailek ordenadore portatila eramanez gero, puntu teknologikoko zerbitzu guztiak erabil ahal izanen ditu Kultur Etxeko edozein puntutik.**

### *Etxalarlatsan bide seinaleak*

Orain dela hilabete batzuk Udalak Nafarroako Gobernuari Etxalarko bidegurutzean abiaduramoteltzeko seinaleak paratzeko eskaria egin zion arriskugunea delako. Dagoeneko abiadura moteltzeko bandak paratu dituzte, baina seinale bertikalak paratzeko daude. Seinale hauen bidez udaletxea bidegurutzean egon zitekeen arriskua guttiagotzen saiatu da.

### *Baserrietako azpiegiturak moldatzeko plana*

Baserriko lanetik bizi direnak laguntzeko subentzioak banatzen ditu urtero Nafarroako Gobernuak eta aurten, 12 baserri hauetako bideak moldatzea eskatu du Herriko Etxeak: Axular (712 m), Errekaboltz (479 m), Zimeldi (890 m), Lakateneko borda (395 m), Armitx-Maestreneko borda ( 400 m), Oiarburu (566 m), Antsoneko borda (1550m), Perugorriko borda (411 m), Mariskineko borda (440m), Maritoneko borda (230 m) eta Basateko Borda (510). Denetara 6.583 metro moldatzea aurreikusia du udalak. Plan osoak 317.771,06 euroko kostea du eta Nafarroako Gobernuak onartuko balu %60a finantziatuko luke.

### *Gasna Feria Egunerako laguntzaileak*

Urtero bezala Altxata Kultur Elkarteak ekainaren lehenbiziko igandeko Gasna Feria Eguna antolatu du. Baina egun hau aitzinera ateratzen laguntzeko prest dagoen jendea behar du, mahaiak jartzeko, taloak egiteko edo saltzeko, bazkaria zerbitzatzeko, mahaiak biltzeko edo frontoia garbitzeko. Egun honetan lan pixka bat egiteko prest egonez gero Altxatako juntako edozein kideri adierazi edo telefono hauetara deitu: 948 635230 (Ainara) eta 948 635029 (Izaskun).











ARANTZA

# Hurrengo igandean herri kirolari gaztetxoak Igantzin arituko dira

Bi jardunaldi iragan ostean, finalean zein ariko diren zehaztuko da hilaren 8an

Nerea ALTZURI

Maiatzaren lehena igandean zela probextuz, atseden hartzeko eguna izan zuten herri kirolariek eta entrenatzaileek. Dagoeneko bi kanporaketa pasatu dira, eta hirugarrena eta azkena Igantzin izanen da hurrengo igandean (eguraldi txarra eginez gero, Beran jokatuko da). Heldu den igandeko jardunaldian finalerako txarteldunak zehaztuko dira, aitzineko kanporaketetan izaniko sailkapenak ere kontuan hartuz. Guk datuak eskuratu ditugu, eta herritarrak proba konbinatu eta soka-tira sailkapenetan nola dauden ematen dizuegu. Alebin mailan zortzi talde daude proba konbinatuan eta Arantzako taldea bortzgarren postuan dago sailkapen orokorrean. Etxean, lehenengo kanporaketan denborarik hoberena egin zuen eta azkeneko kanporaketan bere lana zazpi minututan egin zuen, estreineko kanporaketako denbora alderatuz, ia minutu erdi gehiago behar izan zuen lana bukatzeko.



*Urrezko Eztaiak*

**Bazkariko irudiak dira hauek, tarta mozteko momentua. Dionixia Lazkano Arrieta eta Kornelio Ubiria Leiza bikoteak berrogeita hamar urte ezkondurik bete zituzten joan den apirilaren 16ean. Egun batzuetara, apirilaren 17an izan zen meza eta ospakizuna. Urrezko ezteiak osasunez ospatu dituzte Korneliok eta Dionixiak famili eta lagunartean. Zorionak bikoteari eta sendiari!**

Haur mailako proba konbinatuan, zortzi taldeen artean laugarren postuan dago herriko taldean. Nolanahi ere, talde honen kasuan, hiru jardunaldietako denborarik hoberena, apirilaren 24an, Etxarri Aranatzen eta hirugarren saioan egin zuten, eginbeharra bukatzen bigarren taldea izanik.

Kadete mailako taldeak sailkapen orokorrean guzira, hamar puntu ditu. Lehenengo bi jardunaldietan bigarren postuan geratu zen taldea eta azkeneko saioan berriz, lehenengo bukatu zuen proba konbinatuko jarduna, bederatzi minutu eta erdi pasatxoko denborarekin.

Sokatirako probara pasatuz, narbartearrekin batera osatutako kadeteen taldea hirugarren postuan dago sailkapen orokorrean, puntu eta erdirekin.

Beraz, momentuan horrelaxe ditugu sailkapenak. Heldu den igandean finalerako txartelduneN berri emanen da. Indartsu segitzeko eskatuko diegu herritarrei eta bidenabar, beraiek animatzera joateko ere aukera bada bertze aldi batez.

### *Bataioak eta jaunartzeak*

Heldu den igandean, mezondoan, bataioak izanen dira.

Enaut San Juan Taberna eta Eneit Bertiz Apezetxea bataiatuko dira herriko parrokian.

Bertzalde, maiatzaren 29an, jaunartze eguna izanen da. Lau mutil-neskek jaunartzea eginen dute: Gurutze Iparragirre, Jon Mazizior, Sheila Mitxelena eta Ibai Etxeberriak.

Jose I. Gonzalez Enguita
Pintura lanak orokorrean
BERA

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
BURLATA:

ERREKALDE

IGANTZI

# Herriko Etxeko moldaketa lanak Hirurteko Azpiegitura Plan Berezian sartu dituzte

## Ur-hornidura eta saneamendu sarea berritzeko lanak lehiaketara atera ditu Udalak

**ttipi-ttapa**

Nafarroako Gobernuak apirilaren 25ean egindako batzarrean, 2001-2004 Hirurteko Azpiegitura Planaren barnean dagoen Plan Berezia behin behinekoz zabaltzea erabaki zuen. Joan den urteko abenduan erabaki zuen Gobernuak Plan berezi hori hasiera batez zabaltzea. Gero, hilabete bateko epean eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu behar zuten udalek. Eskatutako dokumentazioa aztertu ondotik, Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio Departamentuak Plan Berezi honetan lanak aurkeztu dituzten udalen eta kontzejuen bideragarritasun ekonomikoa aztertu du. Honen arabera, udal eraikuntzetako moldaketa lanen barnean, Igantziko Herriko Etxea moldatzeko 170.504,81 euroko inbertsioa aurkeztu da eta horren %70a ordainduko luke Nafarroako Gobernuak.



ARTXIBOKOA

**Herriko Etxea moldatzeko 170.504,81 euroko inbertsioa aurkeztu du Udalak eta %70a Nafarroako Gobernuak ordainduko du.**

### Albinte lanposturako lehiaketa

Albinte lanpostua betetzeko lehiaketa deialdian parte hartzeko onartu diren pertsonen izenak argitaratu ditu berriki Nafarroako Aldizkari Ofizialak. Hamar izan dira behin behinekoz onartu direnak: Alejandro Arretxea Maritorena, Severiano Txoperena Matxikote, Imanol Etxeberria Antxorena, Francisco javier Estevez Rodriguez, Aitor Lesaga Orradre, Jose Antonio Trantxe Lizardi, Alejandro Ordoki Arrieta, Santiago Susperregi Goñi, Joaquin Zabaleta Zabaleta eta Mikel Zubieta Erkizia. Bertze batzuk, eskatutako baldintzaren bat betetzen ez zutelako lehiaketatik kanpo gelditu ziren, baina hamar eguneko epea zuten alegazioak aurkezteko. Proba teoriko eta praktikoak, behin betiko hautagai zerrenda onartutakoan hasiko dira.

### Ur-hornidura eta saneamendu sareko lanak lehiaketara

Udalak ur-hornidura eta saneamendu sarearen moldaketa lanak kontratatzea erabaki du. Horretarako lehiaketa deitu du eta hasierako prezioa 630.608,94 eurokoa izanen da. Proposamenak maiatzaren 16a baino lehen aurkeztu beharko dira udal bulegoetan eta behin lanak emanda, lau hilabeteko epea izanen da lanak akautzeko.

### Udaberriko Bestak egin ziren

Euskara Batzordeak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatuta Igantziko Udaberriko bestak ospatu ziren apirilaren 28tik maiatzaren 1era. Solasaldiak, kantu afaria Josu Goiarekin, eskolako ikasleen erakusketa, ipuin kontalaria eta gaztetxoen herri kirol jaialdia izan ziren.













DONEZTEBE

# Ikasturteko azken hiruhilabeteko emanaldiak antolatu ditu Agorreta Musika Eskolak

## Larunbat honetan bateria, eskusoinu eta tronpeta audizioa izanen da elizako atarian

ttipi-ttapa

Doneztebeko Agorreta musika eskolan hainbat ekitaldi antolatu ditu ikasturte honetako azken hiruhilabeterako. Lehena apirilaren 16an egin zen. Doneztebeko piano artean eskainitako piano, klarinete, saxofoieta kitarrako audizioa eskainita.

Apirilaren 27an, kontzertua eskaini zuten musika eskolako ikasleek Zubietako plazan.

Aitzinera begira, maiatzaren 7an, larunbata, Doneztebeko elizako atarian bateria, eskusoinua eta tronpetako audizioa eginen da 19:00etan.

Maiatzaren 13an, ortzirala, Doneztebeko elizako atarian, trikitixa, pandero eta txistuko audizioa eginen da 19:00etatik aitzinera.

Maiatzaren 21ean, larunbata, eguerdiko 12etan Donostiako Kursaalera irteera antolatu dute, "Musikarekin amets egin zuen umea" lana ikustera joateko.



Argazkia: Jon ALTZUGUREN

**Apirilaren 18tik 28ra Doneztebeko udal erakusketa aretoan egindako erakusketa probestuz, «Jose Maria Satrustegi: Nafarroako euskararen ikurra» izeneko liburua aurkeztu zuen Andres Iñigo, Iturengo euskaltzainak. Andres Iñigo berak eta Patxi Salaberrik idatzi dute liburua. Jose Mari Satrustegi Sakanan jalo zen, Arruazun, eta berrogei urtez Euskaltzaindiako kide izan zen. Tarte horretan, hainbat liburu idatzi zituen eta Sakanako idazlerik emankorrena izan dela erraten ahal da. Euskararen alde egin zuen lana goraipatua izan da. Orain, 2005eko Nafarroa Oinez Altsasun izanen dela eta, Satrustegiri buruzko lana egin nahi izan du Nafarroa Oinezen antolaketak eta liburuaz gain, herriz herriko erakusketa eginen da.**

Ekainaren 4an, larunbata, goizez Irunen eginen den Bidasoako Musika Eskolen bosgarren Topaketan parte hartuko dute Agorreta musika eskolako ikasleek, eskualdeko bertze eskoletakoekin batera.

Ekainaren 11n, azkenik, 20.30etan kurtso bukaerako kontzertua eskainiko dute Doneztebeko eliz atarian.

### *Errekako III. eskuz binakako txapelketaren finalak maiatzaren 14an*

Maiatzaren 14an, larunbata, goiz eta arratsaldez jokatuko dira Doneztebeko udal pilotalekuan Errekak antolatutako eskuz binakako hirugarren txapelketaren finalak. Hau idazterakoan, maila bikaina izan duen afizionatu kategoriako finala zein pilotarik jokatuko duten bakarrik erabaki da. Paz de Zigandako Urtasun eta Oroz eta Errekako Orsalo eta Eraso izanen dira aurrez aurre. Lehenbizikoek Oberenako Urdaniz eta Antxori 22-14 irabazi zieten finalaurrean eta Errekakoek 22-15 irabazi zieten Retegi eta Arraztoari. Afizionatu mailako finalarekin batera, benjamin, alebin, infantil, kadete eta jubenil mailakoak ere jokatuko dira udal pilotalekuan.






BERTIZ

# Xareta ingurua ezagutzeko bidaia antolatu da Natur Parketik

## Maiatzaren 22an Zugarramurdi, Urdazubi eta Sara bisitatuko dituzte

**ttipi-ttapa**

Bertizko Jaurerriko naturparketik Xareta ingurua ezagutzeko ateraldia antolatu dute maiatzaren 22rako.

Autobusa 9:00etan abiatuko da Doneztebetik eta ordu laurden beranduago Elizondotik pasatuko da jendea jasotzeko. 10:15etan Zugarramurdira iritsiko da autobusa eta kafea hartzeko atsedenaldia izanen dute. 11:00etan Zugarramurditik Urdazubira oinez joanen dira bidaian parte hartzen dutenek, kontrabandistek erabiltzen zuten bidearen zati bat eginez. 12:30etan Urdazubiko lezeak bisitatuko dituzte eta 14:00etan Urdazubiko Indianobaita jatetxean bazkaria izanen dute.



ARTXIBOKOA

**Sarako Ortillopitz baserria bisitatuta, XVII. mendeko euskal baserri tipikoa nolakoa zen ikusiko dute bidaiariek.**

Akitzeko, bazkalondoan, 17:00ak aldera 1660. urte inguruan egin zen Sarako Ortillopitz baserria ezaguituko dute eta bertan aintzinako bizimodua azalduko zaie bidaiariei. 18:15etan Saratik abiatuko da berriz autobusa, Elizondo eta Doneztebera itzultzeko 19:30etan.

Bidaiaren prezioa 12 eurokoa da, autobusa eta sarrerak barne daudela. Apuntatzeko epea maiatzaren 15ean akaituko da. Bazkaria aparte ordaindu beharko da. Ordainketa bankuaren bitartez eginen da. Informazio gehiago nahi izanez gero edo izen emateko, Bertizko Natur Parkearen 948 592421 telefonora deitu behar da.

### 63.280 bisitari

Bertizko Jaurerriko natur parkeak 63.280 bisitari izan zituen 2004. urtean. Horietatik 41.266 Naturaren Interpretazio Zentrora sartu ziren eta 37.001ek Turismo Bulegoaren zerbitzuak erabili zituzten. Ohikoa denez, abuztua izan zen bisitari gehieneko hilabetea, 12.077. Urtarrilean, aldiz, bakarrik 793 bisitari izan ziren.

## Filme laburren zinemaldia abuztuaren 22tik irailaren 9ra eginen da

Bertizko Partzuergo Turistikoak antolatzen duen Bidasoako Filme Laburren Nazioarteko VIII. Zinemaldia abuztuaren 22tik irailaren 9ra eginen da Bera, Doneztebe, Elizondo eta Hendaian. Parte hartu behar duten filmeek, ekainaren 6a baino lehen bidali behar dute izen-emate orria eta filmeak abuztuaren 13a baino lehen egon beharko dute zuzendaritzaren eskuetan.

















MALERREKA

# Ezpeluraldeko lau Herriko Etxeek udal aurrekontuak onartu dituzte

## Oitzen ur eta saneamendu sareak berrituko ditu Coyser enpresak

**ttipi-ttapa**

Malerrekan, Ezpeluraldeko lau Herriko Etxeek, Beintza-Labaien, Donamaria, Oitz eta Urrozkoek, beraien udal aurrekontuak onartu dituzte berriki.

Honela, **Beintza-Labaienen**, 282.097,55 euroko diru sarrera eta irteerak izanen dituzte. Inbertsioetara 111.297,06 euro bideratuko dituzte. Horien artean handiena, herri lurretan mendi lanak egitea izanen da, 51.760 euroko aurrekontuarekin. Udal hirigintza plana egiteko 21.500 euro erabiliko dira eta eskolan moldaketa lanak egiteko 18.000 euro.

**Donamarian** 702.370,37 euroko diru sarrera eta irteerak izanen ditu aurrekontua onartu dute. Inbertsioetan erdia baino gehiago joanen da, 423.061,33 euro zehazki. Dirutzarik handiena abeltzaintza azpiegituretarako bideak egiteko erabiliko da, 309.714,02 euro. Mendiko lanak egiteko 58.080,09 aurrekontua izanen dute, bide-bazterrak ormigoiztatzeko 27.582,16 euro eta Herriko Etxeko lehendabiziko pisuan, idazkaritza zegoen lekuan liburutegia moldatzeko eta Internet-era sarbidea izanen duten bi ordenagailu jartzeko, 18.000 euro. Azken lan honetarako Cederna-Garalur erakundearen laguntza izanen du Donamariak Udalak.



ARTXIBOA

**Oizko ur garbiaren, ur zikinen eta euri uraren sareak berritzea izanen da aurten Ezpeluraldean eginen den inbertsiorik handiena.**

**Oitzen** izanen da lau herrien artean aurrekonturik handiena manejatuko duena, guzira 706.715 euroko sarrera eta irteerak izanen baitituzte. Inbertsioetan ere dirurik handiena Oitzen izanen dute, guzira 549.227,54 eurokoak eginen baitira. Lanik handiena herriko ur garbiaren, ur zikinen eta euri uraren sareak berritzea izanen da, horretarako 310.256 euroko aurrekontua baitago. Gainera, apirilaren 12an lan hau adjudikatu zuen Oizko Udalak. Coyser Construcciones y Servicios, S.L. lantegiak eginen ditu lanak. Berea izan zen aurkeztutako lau proposamenen artean onena, hasierako aurrekontua baino %11,10 merkeago eginen baitu, 284.635,96 eurotan. Inbertsio honetaz gain, Oizko Udalak 208.486 euro gastatuko ditu abeltzaintza azpiegituretarako bideak egiten eta 15.000 euro mendi lanetan.

**Urrotzen** azkenik, 398.341,98 euroko aurrekontua onartu du Udalak. Inbertsioetan 223.521,25 euro joanen dira. Abeltzaintza azpiegituretarako bideak egiten 125.530 euro gastatuko dira eta mendi lanetarako ia 22.000 euro. Leurtzako urtegian hobekuntza eta mantenimendu lanak egiteko ere 76.546 euroko aurrekontua sartua da, baina horretarako dirulaguntzarik ez denez, seguruenik egin gabe gelditu beharko dute.

# Urrotz eta Zubietako mediku-kontsultetan moldaketa lanak egiteko dirulaguntza eman du Osasunbideak

Jose Carlos Garde Osasunbideako zuzendariaren ebazpen baten bidez jakinarazi denez, Nafarroako hainbat herrietako mediku kontsultetan eraikuntza eta moldaketa lanak egiteko 700.000 euroko dirulaguntza eman da.

Eskualdeari dagokionez, Urrozko mediku kontsultako atea eskuz irekitzeko instalazioa eginen zaio eta 343 euroko dirulaguntza jasoko du Iruñetik.

Zubietako kontsultaren teilatua moldatzeko berriz, 2.528 euroko dirulaguntza emanen du Osasunbideak.



ARTXIBOA

**Urrozko kontsultako atea moldatzeko 343 euroko dirulaguntza eman du Osasunbideak.**



# I.E.S. LEKAROZ ELIZONDO B.H.I.

Bigarren Hezkuntza Institutua




**LEKAROZ**
Uharte auzoa, z/g
31795 LEKAROZ (Baztan)
948 58 18 03
948 58 18 36
Posta Elektronikoa
ieslekar@pnte.cfnavarra.es

**ELIZONDO**
Diputazio Etorbidea, z/g
31700 ELIZONDO (Baztan)
948 58 18 05
948 58 18 40
Posta Elektronikoa
ieselizo@pnte.cfnavarra.es


## Izen ematea:

- **DBH eta Batxilergoa 2005eko maiatzaren 9tik 20ra**
- **Erdi Mailako Lanbide Heziketa**
  - Zuzenean sartzeko **2005eko maiatzaren 9tik 20ra**
  - Proba bidez sartzeko **2005eko maiatzaren 2tik 6ra**
- **Goi Mailako Lanbide Heziketa**
  - Zuzenean sartzeko **2005eko maiatzaren 23tik ekainaren 6ra**
  - Proba bidez sartzeko **2005eko maiatzaren 2tik 6ra**
- **Lanbide Hastapena 2005eko ekainaren 20tik 28ra**

OHARRA.- Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte gurekin kontaktuan.

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

LEITZA

# Herri-kontsultako kanpainak alderdi guztiak mobilizatu ditu




## Udaletxean bilera egin nahi du Convialek maiatzaren 5ean

ttipi-ttapa

Maiatzaren 6tik 21era, bi asteko kanpaina eginen da *«Leitzan harrobirik bai ala ez?»* galderaren erantzuna alde batera edo bestera makurtzeko. Eta itxura guztien arabera, bi aste hauetan giroa dezente berotuko da. Hasteko, maiatzaren 5ean Udaletxean bilera egitea eskatu du Albiñoko Harrobia egin nahi duen Convial enpresak. Bilera horretan elkartu ko dira Leitzako alkatezinegotziak eta baita Herri-kontsultaren aldeko Taldeko eta Larraingo ordezkariak ere Convialekoekin. Ageri denez, hauteskunde kanpainan aktiboki parte hartu nahi du Convialek, eta bere proiektuaren aldeko informazio kanpaina eginen du.

Bestalde, alderdi politikoek ere buru-belarri sartuko dira kanpainan hurrengo bi asteotan. UPNk ez du azkeneko momentura arte argituko galdeketa honetan ez parte-hartzea eskatuko dien bere jarraitzaileei, edo bestela, Leitzan harrobiak egitearen aldeko botoa eskatuko duen. Printzipioz, ezaguna da UPNren postura harrobien aldekoa dela.

Azkenik, harrobirik ez egitearen alde posizionatu dira Aralar, Larrain eta Herri-kontsultaren aldeko Taldea. Orohar, galdeketa egitea bera *«aurrekari garrantzitsua»* dela baloratzen dute, eta *«jendeak parte hartzea inportantea»* dela ikusten dute. Dena den, Leitzan harrobirik eginen balitz, abantaila baino askoz ere kalte gehiago ekarriko dutela arrazoitzen dute.



Goizuetako zagidantza berriz ere ikusiko da Leitzako kaleetan.

Arhitsoide

# Haur eta gurasoen topaketa eginen da maiatzaren 14an

## Areso, Goizueta-Arano eta Leitzako eskolen artean

Egun osorako jarduera mordoa antolatuak dituzte, eta euria eginez gero, Plazan egin beharrekoak frontoian eginen dira seguruenik.

Goizeko 11:00etan hasiko da topaketa Plazan eginen diren Joku kooperatiboekin. Eguerdiko 13:00etan kalejira, Goizuetako gazteen zagidantza eta Leitza-Goizuetako trikitilariekin. Segidan, Aresoko dantzari txikiak arituko dira. Bazkaltzeko ogitartekoa norberak berea eraman beharko du, eta edatekoa, Aurrera elkartean emanen zaie. Arratsalde partekoa 16:00etan hasiko da Goizuetako eskolako kantariekin eta Asketa Txikikoen emanaldiarekin. 17.00etan "Bizi alai" antzeslana eskainiko du Bihar taldeak, eta eguna bukatzeko, arratsaldeko 18:00ak aldera, txokolate jatea eta ingurutxo popularra.

KIROLA

# Iparraldeko Joku Torneoa antolatu du aurten ere Herri Kirol Federazioak

## Maiatzaren 13rako apuntatu behar da

ttipi-ttapa

Nafarroako Herri Kirol Federazioak Iparraldeko Joku Torneoa antolatu du aurten ere. Mutilen arteko koxkor biltzeak izan ezik, torneo honek ez du loturarik edukiko Iparraldeko Joku txapelketekin. Mutilen arteko koxkor biltze modalitatean sailkatzen diren lehenbiziko bost kirolariak Nafarroako koxkor biltze txapelketarako txartela lortuko dute. Guzira hiru jardunaldi jokatuko dira ekainean liga sistema erabiliz, baina oraindik egunak eta lekuak ez dira zehaztu. Neska eta mutilen koxkor biltzea, neska eta mutilen ingude altxatzea, neska eta mutilen txinga eramatea, harrijasotzea, lasto altxatzea bikoteka, orga jokua eta mutil eta neska hirukoteen zakulari lasterketa jokatuko dira. Modalitateren batean parte hartu nahi duenak, Federaziora deitu behar du (948 450900) maiatzaren 13a baino lehen.

### *Sokatira txapelketa.*

Larunbat honetan, maiatzak 7, abiatuko da Nafarroako sokatira txapelketa. Mutilen artean, azken urteetan jaun eta jabe izan den Lesakako Beti Gaztek ez du parte hartuko. Nesketan, aldiz, Berako taldea itzuliko da aurten goma gainera.

# ttipi ttapa

397. zenbakiarekin banatua

Hiritik hiri, bestaz besta

Iruritako dantzariek erakustaldia eginen dute egun nagusien...



Urdazubin besta giroa izanen da aurten ere zikiro-jate tenorean

# Salbatoreak Iruritan eta Urdazubin

Maiatzaren 4tik 8ra



### Asteazkena 4
### Bezpera Eguna

**12:00etan** Altxaferoa, kalejira. **20:30etan** ezkil jotzea. **21:30etan** Baztanzopak. **24:00etatik 4:00etara** SALABERRIrekin dantzaldia karpan.

### Ortzegune 5
### Salbatore Egune

**10:00etan** kalejira. **11:00etan** Meza Nagusia (herriko koroak abesturik). **12:00etan** herriko dantzarien erakustaldia. **13:00etan** herrikoentzat hamaiketakoa. **17:30etan** goitibera lasterketa. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia JOSELU ANAIAK taldearekin. **22:00etan** mutildantzak. **24:00etatik 4:30etara** dantzaldia JOSELU ANAIAK taldearekin.

### Ortzilaria 6
### Haur eta Jubilatuen Egune

**10:00etan** kalejira. **11etatik 13:00ak arte** haurrendako jolasak. **14:00etan** haurrentzako eta jubilatuentzako bazkaria. Gazteen bazkaria Baigorrin. **15:30etan** haur jolasak. **18:30etan** kalejira txarangarekin. **19:00etan** txokolate jatea. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia EGAN taldearekin. **22:00etan** mutildantzak. **24:30etatik 4:30etara** dantzaldia EGAN taldearekin.

### Larunbata 7

**11:30etan** «Gaur Jaiak» ekitaldia. **12:00etan** kalejira txarangarekin. **14:00etan** herriko bazkaria txarangak lagundurik. Bertsolariak: Irazu eta Poñagarikano. **18:00etan** nesken eta gizonezkoen Aranabiako X. txapelketen finalak. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia BIG CUADRILATERO taldearekin. **22:00etan** Mutildantzak. **1:00etatik 5:00etara** dantzaldia BIG CUADRILATERO taldearekin.








**BAZTAN MOTOR, S.L.**

*Mekanika, elektrizidadea, txapa eta pintura*
*Auto berri eta erabilien salmenta*
Zaldubia - IRURITA
Tel. eta Faxa: 948 452 119






Bidali ttipi-ttapa herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Eskatu informazioa
✆ (+34) 948 635458



**OLARI**
Jatetxea



Tfnoa: 948 45 22 54
IRURITA
* Jatetxea haize egokituarekin hornitua


### Igandea 8

**10:00etan** LII. Txirrindulari Salbatore Saria. **11:00etan** Meza Nagusia. **11:30etan** kalejira txarangarekin. **17:30etan** Saralegi Anaien eskutik, herri kirolak. **19:00etatik 20:45etara** dantzaldia AZZUL taldearekin. **20:45etatik 22:00etara** kantaldia. Mexikanak GLADYSekin. **22:00etan** Mutil-dantzak. **22:30etatik 1etara** dantzaldia AZZUL taldearekin eta besten akabaila.


**JOAKIN harategia**
ongi pasa bestak!
Agerreberea
IRURITA
948 581 077



**Composites Baztan**
*Poliesterezko lanak*
Konpromesurik gabeko presupuestuak



☎ 948 58 18 24 • faxa: 948 58 18 52
compositbaztan@terra.es
Zaldubia industrialdea, Iruña - Donostiako errepidea
31730 IRURITA



Argazkiak: Andres DIHARASARRIk utziak

*?, Hermenegildo Irarte, Gabriel Urtizberea, Martin Jose Barrenetxea, Xanti Alzuet, Juan Bautista Aleman, Gervasio Jaurena, Juan Juxtorenborodakoa, Joxe Angel Olaizola, kordionista, Erreka?, Pedro Bengoetxea, Andres Diharasarri, Juan Pedro Organbide, Patziku Aroztegi, Jose Antonio Diharasarri, Martin Iribarren, ?.*









# Esku pilota partidak izanen dira Salbatore egunez

### Asteazkena Maiatzak 4

**20:00etan** txupinazoarekin batera bestetako sarrera izanen da. **22:00etan** afaria berezia izanen da. Lehen, bigarren eta hirugarren adinetako jendearentzako «Karretero Ostatuan». Ondoren, gaueko giroa alaitzeko Modesto izanen da.

### Ortzeguna Maiatzak 5 Salbatore Eguna

**11:00etan** Meza Nagusia. **12:00etan** herriko pilotalekuan aperitiboa izanen da «Zazpiak Bat» dantzari taldearekin eta Gaiteroekin. **16:00etan** eskuzko pilota partiduak izanen dira. **17:00etan** haurrentzako jokuak izanen dira JOKULANDIArekin. **22:00etan** bertzo urteetan bezala izugarrizko paella izanen da. Paella jan bitartean eta gau osoan animazioa «ETXABE ANAIAK» taldearekin.



ARGAZKIAK: ANDRES DIHARASARRIK UTZIAK

*EZKOLAKO MUTIKOAK ETA IRAKASLEA, 1952. URTEKO ARGAZKIAN.GENARO FAGOAGA, JESUS ARANDIOA IRAKASLEA, PAKITO BARRENETXEA, MARTINTXO AGIRRE, HERMENEGILDO IRIARTE, ANDRES DARRAIET, JUAN FELIX ALZUET, MATTIN AZKARRAGA, ?, X. NEMOUR, FELIPE IBARRA, PATXI BIDAURRE, RAFAEL, JOSE ANTONIO GERENDIAIN, JOSE ANTONIO AGIRRE, JUAN PEDRO ORGANBIDE, PAULO OLAIZOLA, POLI JAURENA, X. BOUZAS, JUANITO ALEMAN, ILDEFONSO ARANDIA, DAMASO FAGOAGA, CARLOS ETXENIKE, MIGELTXO GOIENETXE, FELIPE SUHAS, JOXEMIGEL ETXART, X. MORIANO, X. DEL BUSTO, LUCIO JAURENA, ALFONSITO IRIARTE, GERVASIO JAURENA, ANDRES DIHARASARRI, PAULO OLAIZOLA.*


Faustino ETXABE Tailerrak
Autoen konponketa
Besta on batzuk pasa!
✆ 948 599038 • ZUGARRAMURDI

Indianoa Baita
Jatetxea - Ostatua
Ongi pasa herriko bestak
Tfnoa: 948 59 90 21 - URDAZUBI

Angel BENGOETXEA
eraikuntzak
✆ 948 599484 • URDAZUBI

SANTIAGO VILLARES
GARRAIOAK
- Luzema
- Agotza eta lastoa
- Luzema - pentsu granulatuen
SALMENTA eta EXPORTAZIOA
✆ 948 59 91 34
609 41 57 77
URDAZUBI

IRIARTEA BENTA
Chez Peyo
Ostatua - Autozerbitzua - Larrua...
Tfnoa: 948 599049 - DANTXARINEA • URDAZUBI

JOSENEA
Zerbitzu Estazioa
Besta onak pasa!
✆ 948 599090
URDAZUBI

ANASTASIA OSTATUA
Janari Denda
Tfnoa: 948 59 90 27 - URDAZUBI

ZUBIONDOA

Ostatu
Autozerbitzua
Oroigarriak
Tel. (0034) 948 599 041 DANTXARINEA



ARGAZKIAK: ANDRES DIHARASARRIK UTZIAK

*PATZIKU AROZTEGI, ?, PERIKO ETXEBERRIA, EXTEBAN SOUBELET, MARTIN ELORGA, ?, ANTONIO BELTZA, MATTIN ITURRIA, XANTI ALZUET, GERVASIO JAURENA, JUAN BAUTISTA ALEMAN, JOSE OLAIZOLA, PABLO JAURENA, MIGUEL BARRENETXEA, AGUXTIN ZALDAINENA, LUCIANO MIHURA, MANUEL JAURENA, ?, JOXE MARI PLAZA, GABRIEL URTIZBEREA, JOXE MASKOTENA, JOSE ANTONIO DIHARASARRI, JUAN JUXTORENBORDAKOA, PACO BIDAURRE, JAVIER APEZTEGIA, JUANITO SAGASTIBELTZA, LUIS BIDEGAIN, ?, CEFERINO BLANCO, ?, JESUS BIDAURRE, JULIAN HUARTE, MATEO ARANDIA.*

## Ortzilarea
## Maiatzak 6

**10:00etatik 12:00etara** herriko ikuspegiak ezagutzeko globo aerostatiko erraldoia. **12:00etan** dianak Dantxarineako auzoan barrena. **16:00etan** haurrentzako jokuak izanen dira JOKULANDIA taldearekin. **20:30etan** Sagardotegi mugikorra, 125 litrotik gora eta 500 pintxorekin, musika ekipo eta trikitilariekin. **0:00etan** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.















*Zikiroan Juan Pedro Organbide, Xanti Alzuiet, Dionisio Mujika, Gervasio Jaurena, Valeriano kordionista, Patziku Aroztegi, Martin Iribarren, Joxe Maskotena, Mateo Arandia, Juanito Sagastibeltza, Patxi Sansiñena, Gabriel Urtizberea, Jose Antonio Diharasarri.*

## Larunbata Maiatzak 7

**14:00etan** betiko zikiro jatea TXORONGO txarangarekin alaiturik. Ondotik opari zozketa. Ea horren gibeletik, kalejira herriko ostatu guztien inguruan izanen da, herri azpitik herriaren goraino, alkoholemiako froga barne. **20:00etan** zingarjatea Urdazubiko frontoian. **0:00etan** kontzertua GAUBELA taldearekin.

## Igandea Maiatzak 8

**12:30etan** Herri Kirolak. **17:00etan** Kontrabandisten lasterketa. Arratsaldea JOXE ANGEL musikariak alaituko du. **18:30etan** IKUSGARRI-rekin, zuzen zuzenean motozerraren bitartez egur mozketa, artisau lanak eta tailak sortzeko. **21:00etan** herriko besten bukaera, «Pobre de mi».



*Jaime Sagastibeltza, Mateo Arandia, Luis Mari Sansiñena.*

ttipi ttapa
☎ (0034) 948635458
Salbatore besta zoriontsuak opa dizugu

Benta Ostatua • Jatetxea
mikelenborda
Tel: 0034 948599045
31712 DANTXARINEA

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko errep. 3. km
© 948 59 91 31
URDAZUBI

Ongi pasa bestak!
ILEAPAINDEGI MIXTOA
KIMERA
Frantziarako errep. (Peio Benta)
Telf. 0034948599062
31712 DANTXARINEA

ETXELEKUA
ETXEKO BEHI eta ARDI GASNA
Zugarramurdiko karretera,
© 948 599169 URDAZUBI

BVRKAITZEA
ostatu - erretegia
Ongi pasa herriko bestak!
Zugarramurdiko bidea, 3 km.
© 948 599380 - URDAZUBI

MENTA
JATETXEA
RESTAURANT
XARETA
Ongi pasa herriko bestak

# TELEZENTROA

CEDERNA GARALUR

## Ekintza-programa Maiatza/ekaina 2005

### Teknologi jardunaldiak, ETE eta negozio txikiei zuzenduta

| Teknologi jardunaldiak | Datak / ordua | Izen-ematea pertsonako |
|---|---|---|
| **Turismo-negozio txikiak kudeatzeko softwarea** Txostengilea: Koldo Gamazo | Ekainak 2 osteguna 18'30-20'30 h. | 15 € |
| **Interneten non aurkitu enpresentzako software interesgarriak?** Txostengilea: Koldo Gamazo | Ekainak 9 osteguna 18'30-20'30 h. | 15 € |
| **Nola eragiten die ETEei datuak babesteko Legeak?** Txostengilea: Abel Aguado | Ekainak 16 osteguna 18'30-20'30 h. | 15 € |
| **Enpresa birus informatikoetatik babestu.** Txostengilea: Koldo Gamazo | Ekainak 21 asteartea 18'30-20'30 h. | 15 € |
| **Interneten irudi ona izateak duen garrantzia: sarean negozio eta enpresa txikiak eraginkortasunez sustatu.** Txostengilea: XARETIK Nafarroako Mendialdeko Telelan Komunitatea IKTBen arloan | Ekainak 30 osteguna 18'30-20'30 h. | 15 € |

***Kontsulta teknologikoak***
*Jardunaldietan parte hartuko dutenek CEDERNA-GARALUR Elkarteko teknikariei (teknologia berrien arloan adituak) teknologiari buruzko kontsulta pertsonalizatuak eskatzeko aukera izanen dute, jardunaldian aztertuko gaien inguruko zalantzak argitze aldera.*

### Prestakuntza, teknologi aberrien arloan

| Ikastaroa | Datak / ordua | Non | Matrikula pertsonako |
|---|---|---|---|
| **Windows + oinarrizko Word:** Dokumentuak nola sortu eta antolatu gure ordenagailuarekin? Iraupena: 15 or. | Maiatzak 27, 30, 31 eta ekainak 1 eta 2 8.30 -12.30 h. | Bidasoako Enpresa Zentroa (Lesaka) | 50 € |
| **Internet: nabigatzea eta posta elektronikoa** Iraupena: 15 or. | Ekainak 6, 7, 8, 9 eta 10 8.30 -12.30 | Bidasoako Enpresa Zentroa (Lesaka) | 50 € |

**Ikastaroak non emanen diren, horiei buruzko argibideak eta izen-ematea:**

CEDERNA GARALUR
Bidasoako Enpresa Zentroa
Alkaiaga industrialdea Alasta kalea, 28 partzela
31770 LESAKA (Nafarroa)
Tel. 948 62 51 22 / Faxa 948 62 51 32
bidasoa.admon@cederna.es

local enterNET

Nafarroako Gobernua

# LANDIBAR AUZOAN
# URDAZUBI- NAFARROA















*Etorri, probatu eta gozatu*

**Erreserbak:**
**(0034) 948 599410**

ADINEKOAK

# Herrietako ordezkariak eta Calixto Ayesa omenduko ditu Arkupeak elkarteak

**Maiatzaren 26an Gorraizen izanen da ospakizuna**

ttipi-ttapa

Arkupeak erretiratuen elkarteak omenaldia eskainiko dio maiatzaren 26an bere herrietako delegatuei, bizi direnei nahiz hil direnei. Elkarteak hogei urte bete ditu aurten eta bereziki eskerrak eman nahi izan die delegatuei urte hauetan egindako lan handiarengatik. Horretaz gain, egun berean omenaldia eskainiko dio Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate kontseilaria izan zen Calixto Ayesari.

Ospakizuna Gorraizko Gazteluan eginen da. 13:00etan, Gorraizko kaperan meza izanen dute, omenduei eta hildakoen senideei eskainia. Ondotik, oroigarriak eskainiko zaizkie Gorraizko gazteluko dantza-aretoan eta gero bazkari ederra izanen dute. Bazkalondoan, dantzaldia izanen dute Joxe Angel akordiolariarekin. Etxerako 20:15etan izanen dute. Egun honen prezioa ohikoa da, 25 euro, baina omentzen dituzten delegatu eta delegatu ohiek eta hildako delegatuen senide batek doan izanen dute besta. Gainerako senideek, bertze bazkideen prezioa ordaindu beharko dute, hau da, 25 euro. Izen ematea ohiko lekuetan egin behar zen apirilaren 30a baino lehen.



## GOIZUETA

# Xalto Irratiaren emisioek eta Goxaliko Liburuaren Egunak ederki ase ditu haurrak apirilean

Ekaitz Narbarte txapeldun izan zen Zizureko txapelketan

Esteban AROTZENA

Eskolako neska-mutikoek bete beteko partehartzea izan dute apirilaren azken astean egin diren bi ekitaldi nagusietan. Xalto Irratitik ume guziak igaro dira txandan txandan, eta hainbat berri, kantu, elkarrizketa... aditzeko aukera izan dute herritarrek. Goxalik berriz, ekintza asko antolatu ditu Liburuaren Egunaren inguruan, hala nola, eskulan bereziak, ipuinak egitea eta hauen erakusketa, joku kooperatiboak, ipuin kontalariak, etabar...

Aipatu behar da, bestalde, Leitza, Areso eta Goizuetako eskoletako ikasleen arteko urteroko topaketa Leitzan izanen dela aurten maiatzaren 14an.

### *Ekaitz Narbarte txapeldun*

Ekaitz Narbartek Zizuretik ekarri du etxera bere lehenengo zapela Torneo handi horretako kadeteen finalean lortutako garaipenari esker.

### *Herri Urrats*

Gazte Asanbladak antolatutako autobusean Herri Urratsera joan nahi duenak Urrutinean izena eman behar du, eta gero 6 euro ordaindu bertan.



ARGAZKIA: MAITANE APEZETXEA



**Horretan gogor saiatu bazen ere, eguraldiak ez zuen Txineko festa izorratzea lortu, iazko edizioan baino askoz giro hobea izan baitzen auzoan egun eta gau osoan. Aipagarria, antolakuntzaren lan ikaragarria.**

## ARESO

# Bolumen handiko hondakinak Ilunbera eraman behar dira

Juana Mari SAIZAR

Birziklatzeko ohiturak pixkana pixkana sartzen ari da gurean. Orain bolumen handiko trasteak ez dira edukiontzien ondora atera behar. Aurrerantzean Ilunbera eraman behar dira, han dagoen mahiaren azpiko aldera, eta handik Emausko Traperoak bereiziko dituzte.

### *Udal ordenantzak*

Bi ordenantza berri martxan jarri nahi dira, bata komunalaren erabilera eta egurraren aprobetxamendurako, eta bestea aziendentzako larreena. Bestalde eta lehenengo aldiz, pertsona ezinduendako aparkatzeko txartelak emango dira, dagoeneko bakar batzuk eskatu baitira.

### *Dantzari txikien jantziak*

Dantzari txikientzako jantziak egiten ari dira guraso batzuk. Udaleko areto batean biltzen dira eta elkarri lagunduz jantzi berriak laister prest izango dira estrenatzeko.





***Monagiloen topaketa***

**Lerinen ospatu zen monagiloen topaketa eta han parte hartu zuten herriko gaztetxoek. Jokuetan oso ondo ibili ziren.**

# e g i t a r a u a

**maiatzak 06 ostirala**

"LUR TABERNA" 00:00

**maiatzak 07 larunbata**

"LUR TABERNA" 00:00

**maiatzak 13 ostirala**

"P.J. KRAKER" 00:00

**maiatzak 14 larunbata**

"DISKOTEKA"

00:00

**maiatzak 20 ostirala**

"WICHITA"

00:00

**maiatzak 21 larunbata**

KOMA + eko4

23:30 12€ + kontsumizioa

**maiatzak 27 ostirala**

"THE BIRRAS"

00:00

**maiatzak 28 larunbata**

"GARRAXI"

00:00 8€ + kontsumizioa

eta ekainean...

ekainak 04 larunbata

# GATIBU

disko berriaren aurkezpena

Lur

2:00ak arte sarrera dohainik. Aintzinet 8€+kontsumizioa | Ostiralero sarrera dohainik

E l i z o n d o ( N a f a r r o a )

www.lurelizondo.com

BAZTAN

# 14,1 milioi euroko udal aurrekontua onartu du aurten Balleko Udalak

## EAko zinegotziek aldeko botua eman zuten eta UPNkoek kontrakoa

**ttipi-ttapa**

Baztan Balleko Udalak 14,1 milioi euroko diru sarrera eta irteerak izanen ditu aurten, EAren aldeko 8 botuekin eta UPNren aurkako 5ekin onartutako aurrekontuaren arabera. Aurrekontu orokor horretan sartzen dira Udalaren aurrekontua (11,9 milioi), Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxearena (1,68 milioi) eta Baztan Ikastolarena (517.600 euro). Balleko Udalak, 7,08 milioi euro baino gehiago inbertsioetara bideratuko ditu aurten eta horretarako 2,4 milioi euroko kreditua eskatu beharko du. Horrek zorpetze-maila %14,72an jarriko du, muga %21,4an ezarrita dagoenean.



Erratzuko Bidegorrietan ez dute hainbertze gas, pila eta kandela gastatuko., baserrira argia sartzeko lanak aurtengo udal aurrekontuan sartu baitu Balleko Udalak. 107.500 euroko aurrekontutik %60 Nafarroako Gobernuak ordainduko du eta %17 bizilagunek beraiek.

Inbertsiorik handiena, Hirurteko Planean onartutako lanetara bideratuko dira. Honetan, 4,67 milioi gastatuko dira, baina 2,5 milioi Nafarroako Gobernuak ordainduko ditu. Amaiur, Ziga eta Erratzuko eskolak moldatzeko 300.500 euro gastatuko dira eta Nafarroako Gobernuak %65a ordainduko du. Iruritako Loizu hiltegian moldaketa lanak egiteko 280.000 euro erabiliko dira, %60ko dirulaguntzarekin eta Almandozen hirigintza lanak egiteko 224.000 euroko aurrekontua izanen da. Abeltzaintza eta toki azpiegitura lanak egiteko 200.000 euroko inbertsioa eginen da, oso-osorik Nafarroako Gobernuak ordaindu eta auzolan bitartez eginen direnak.

Bertzelako lanak ere izanen dira: Amaiurko errota moldatzeko 205.000 euro gastatuko dira, Arizkungo frontoia moldatzeko 200.000, mendi lanak egiteko 115.000 euro eta Erratzuko Bidegorrieta baserrira argia eramateko 107.500 euro. Balleko Udalak oso-osorik ordaindu beharko du pisten moldatze eta zolaberritze lanak, 85.000 euroko aurrekontuarekin edo Elbeteko frontoiaren moldaketa lanak, 36.000 euroko aurrekontuarekin. Udaletik herriei ematen zaien dirulaguntzari dagokionez, aurten ere, Kontsumorako Prezioen Indiziea bakarrik igo da, IPC delakoa; eta 82.234 euro emanen dira osotara. Gehiena Elizondok hartuko du, 9.291 euro eta guttiena, zortzi herri ttikienek, Azpilkueta, Elbete, Gartzain, Arraioz, Ziga, Aniz, Berroeta eta Almandozek, 5.091 euro bakoitzak. Tartean, Iruritak 5.973 euro hartuko ditu, Arizkunek 5.834, Erratzuk 5.578, Oronozek 5.392 euro, Amaiurek 5.118 eta Lekarozek 5.312 euro.












BAZTAN

# Bittor Elizagoien izanen da Oronoz-Mugairiko alkatea

## Arkeologia ikusketak eginen dira Elizondo eta Irurita arteko bidean

ttipi-ttapa

Arraiozen sortu eta aspaldian Oronoz-Mugairin bizi den Bittor Elizagoien Etxegarai bertsolaria izanen da herriko alkatea. Apirilaren 17an egin zen batzarrean alkate izateko inor aurkeztu ez zenez, agertutakoen artean bozketa egin zen eta Bittor Elizagoien izan zen bozkatuena, 7 bozekin. Manuel Inziartek 6 botu jaso zituen eta Josu Inziartek 4.



ARGAZKIA: XABI BALLARENA UTZIA

***Baztango eskoletako Lehen Hezkuntzako ikasleak Hondarribian izan ziren***

**Baztango herrietako eskolako Lehen Hezkuntzako 3-6. Mailako ikasleak (Irurita, Oronoz, Ziga eta Gartzaingoak dira argazkian ateratzen direnak ) apirilaren 13,14 eta 15 ean Hondarribian izan ziren hainbertze ekintza egiten, itsasoaren inguruan.**

### *Arkeologia ikusketak*

Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuak baimena eman du arkeologia ikusketak egiteko Baztanen. Zehazki, Irurita eta Elizondo artean eginen den N-121-B errepidearen eraikuntzak ukitzen ahal duen ondare historikoa babesteko hartu du erabaki hau. Honela, Kultura eta Turismo Departamentuak, Runa eta Peyco enpresei enkargatu dio lana. Lanak egin aitzinetik egin beharreko zundaketen planifikazioa eta ondare historiko eta etnografikoari buruzko katalogazioa egin beharko dute. Horretaz gain, lan hau eginen duten enpresek aurkitzen dituzten hondakinak Ondare Historikoaren Zerbitzuari eraman eta emaitzei buruzko txostena prestatu beharko dute. Gainera, errepideak ondare arkeologikoari eragiten dioenean, trazatuaren aldaketak proposatu beharko dituzte eta obra-planarekin bateragarriak diren babes-proposamenak eginen dituzte.

FLASH

### *Ordutegi moldatuko Lanbide Heziketa Zikloak Elizondon*

2005-06 ikasturterako Lanbide Heziketako zikloak ikasteko izena aurretik emateko epeen irekiera dela eta Lekaroz-Elizondo BHIko Elizondoko institutuak Erdi mailako Kudeaketa administratiboa zikloa eta Goi mailako Administrazioa eta finantzetako zikloa moduluka ikasteko aukera eskaini du. Iazko esperientziaren ondotik, heziketa zikloak bigarren hezkuntzan ari diren gazteei eskaintzeaz gain, beren ikasketak eguneratu, lan munduan birziklatu eta formazioa jaso nahi duen edonori zabaldu zaio lanbide heziketako ziklo hauek ikasteko aukera. Programa honen bitartez, ikasleek informatika, kontabilitatea edo fakturazioa bezalako gaiak landu eta, lan munduarekin harreman zuzena duten ikasketa hauek osatzeko eskualdeko enpresetan praktikak egiten dituzte ikasleek.

### *Udal Boletina*

Baztango Udal boletina aurkeztu zuten apirilaren 26an. Sei hilabetetik udal informazioa eskainiko da aldizkarian.










SENPERE

# Seaskak sekulan egin duen mailegu haundienaren parte bat pagatzeko eginen da Herri Urrats

## Pilotak segida oparoa duela Senperen erakutsi dute gazteek



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

**Biharko pilotarien biltzarra.**




ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

**Serge Zudaire, Isabelle Charritton eta Jakes Erramuzpe Seaska eta Herri Urratseko arduradunak.**

Franck DOLOSOR

Maiatzaren 8an, Senpereko aintziran ospatuko den Herri Urrats musika jaialdi bat baino gehiago da. Besta hori beharrezkoa da Iparraldean elkartasunari esker sortu eta haunditu diren ikastolak laguntzeko. Iparraldean, euskara ez da oraindik ofiziala bainan traba guzien gainetik, gaur 2.129 ikasle daude Seaskak dituen 20 ikastoletan, Baionako lizeoan eta hiru kolegioetan institututan. Preseski aurtengo irabaziekin, Ziburun eta Donaixtin dauden institutuak lagunduko dituzte 11 eta 15 urte bitarteko ikasleek baliabide hobeak ukan ditzaten. Ziburun kolegio berria eraikiko du Seaskak 300 ikasle hartzeko, hauen artean senpertar batzuk. Lanak laster hasiko dira eta 9 hilabete iraunen dute. 3 600 000 euroko diru mailegua egin du Seaskak.

### *Pilota eskolako gaztetxoen zoingehiagokak jokatu ziren*

Zoingehiagoka ederra jokatu dute berriki pilota eskolako hogoita hamar ikasleek. Senperek pilotari haundiak eman ditu beti eta geroan ere segida izanen da dudarik gabe.

Gaztetxoek trebetasun haundia erakutsi dute. Argazkian den talde osoa saritua izan da, kopak banatu zaizkiotelakotz irabazleeri eta dominak bihar nagusituko direneri!






AZKAIN

# Euskal kostaldeko hirugarren mailako finala jokatuko du herriko errugbi taldeak

## Pomaresen kontra arituko dira maiatzaren 8an

**Angela eta Xamo**

Heldu den maiatzaren 8an, Azkaingo errugbi taldeak Euskal kostaldeko hirugarren mailako finala jokatuko du Pomares-en kontra. Emaitza horrek erakusten du aurten sasoin eder bat ari direla egiten herriko errugbilariak. Urtean zehar, partida pullitak ateratu dituzte, erakutsiz txapela eztela urrun aurten. Finala galtzen badute, sasoina ezta bukatua izanen. Segur dira Frantziako hirugarren mailako txapelketa jokatuko dutela.

Erreserbako taldeak bere aldetik txapelketaren finala jokatu du gan den apirilaren 23an, Pomares-en kontra ere. Zoritxarrez, ez dute txapelarik irabazi.




Argazkia: Angela

**Duela hilabete batzuk ideki zituen ateak «Hobekio» senda zentroak. Hainbat zerbitzu proposatzen ditu, pertsona bakoitzarentzako nahiz kurtso kolektiboak.**

### Bollendorf

Apirilaren oporran Azkain ta Bollendorf herrien arteko anaitasun elkarteak egin behar zuen bidaia anulatua izan da azkenean, idazkun guti izan zuelako bidaia antolatzeko. Bainan elkartearen bihotz onak ez dira desilusio hortan egonen. Badakigu ari direla jadanik alemaniarren etortzea antolatzen, heldu den urriakotz.

### «Hobekio» senda zentroa ireki dute

"Corysé Salomé" lantegi zaharren egokitzearekin, proiektu desberdin batzu muntatu dira Lanzelaien. Aldizkari huntan aipatu ginuen bezala jadanik, gimnaztika talde bat etorri da Donibanetik hastapenean, leku handiago bat sekatzen zuelako. Geroztik, "stretching" eta gihar lanako gelak ideki dituzte. Gero, Txopinondo sagarnotegia instalatu zen, beti lantegi zaharraren pareten barnean. Eta azkenean, "Hobekio" senda zentroak ateak ideki ditu duela hilabete batzu. Zerbitzu desberdin batzuk proposatzen ditu, sendagintza goxo lemaren inguruan. Denetarik atsematen ahal dira: pertsona bakoitzarentzako zerbitzuak baita kurtso kolektiboak ere. Hala nola, holistiko sendagintza, osteopatia, psikomotrizitatea, psikoterapia, podologia, igurtzialdia, teatro, sofrologia, yoga, qi gong, tai chi chuan, stretching, etabar...

### Sebastien Gonzalez final laurdenetan

Eskuz banakako pilota txapelketan parte hartzen duten bi pilotari lapurtarren arteko norgehiagoka ikusgai izanen da asteburu honetan. Sebastien Gonzalez azkaindarra eta Xala lekuindarra izanen dira aurrez aurre.





SARA

# Herriko jende kondaketaren emaitzak agertu dira

2.305 bizilagun ditu Sarak, 1999an baino ehun gehiago

Laetitia, Sandrine eta Krispin

Sarako jende kondaketa bururatu da otsailaren 19an. 2.153 biztanle ditu Sarak. Emaitza horri gehitu behar zaizkio 41 ikasle eta 111 pertsona Zahar Etxean.

Orotara, 2.305 biztanle kondatzen ditu Sarako herriak (1999an, 2.204 ziren).

### Xiba

Maiatzaren 7an, arratsaldean, Xibak, Euskal jolas, joko eta kirolen topaguneak, Sarako plaza alaituko du Euskal Jokoak antolatuz. Topaketa horretan parte hartuko dute Iparraldeko herri zonbeitzuetako euskal talde batzu (12 talde orotara) eta bai ingudea altxatzen, trontzan, sokatiran, lastoa altxatzen, dantzan ariko dira bikoteka (neska bat eta mutiko bat) bat bertzearen kontra. Hori dena iraganen da ezin umore onean eta edateko manera ere segurtatua izanen da plazan. Euskararen alde hori dena bixtan dena.



Hiru puntitu taldeak «Beltzeria» lana eskainiko du maiatzaren 22an Omordian.

### Selau hustea

Lehen aipatu ginuen bezala, apirilaren 10ean, igandearekin, Sarako polikiroldegian antolatua izan da Eskola Publikoaren alde selau hustea. Han hurbildu dira 30 bat saltzaile. Jendea poliki ibili da egunean zehar.

### Faardiko harria

Apirilaren 23an, Olhain Ikastolak antolatutako erakustaldian, Sarako Ikastolako haurrek «Faardiko harria» antzerkia aurkeztu dute. Jende ainitz hurbildu da haurren ikusteko. Ondotik zintzur bustitze bat egin da.

### Beltzeria antzerkia

Hiru Puntitu taldeak antzezturik, Sarako Omordiako gelan «Beltzeria» obra aurkeztua izanen da maiatzaren 22an, arratsaldeko 4etan. Jokalariak, musikariak, kantariak hauek dira: Maialen Torre, Eiherabide eta Fauthoux, Jean Marie Ingoin, Beñat Bidegain, Iñaki Etxelaku, Hartzea Lopez, Amaia Etxandi eta Mirentxu Ibargarai.

### Errugbia

Sarako errugbi taldeak galdu egin du apirilaren 17an Saran Hossegoren kontra. Punttu batez irabazi behar zuten bainan galdu dute (6/9). Agian heldu den urtean finalerat allegatuko dira! Halere zorionak!




Maderas GOMEN

Zaldubia industrialdea
Tel: 948 580 645 · IRURITA

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

HERRIKO ETXEKO EDENTEGIA
CAFE DE LA MAIRIE
MAINAN ETA VERONIQUE
SARA • TEL 0559542519

SOULE
Hileta artea
Tf. 948 453444-629 659583
ARIZKUN


INFORMATIKA

## Guztiok Internet-en kanpaina eskualdean da egunotan

Datozen hilabeteetan Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak, Red.es erakunde publikoaren bitartez, hiritarren informaziorako eta partaidetzarako kanpaina egiten ari da. Kanpaina hiritar guziek teknologia berriak eta Internet sarea ezagutu eta hauen erabilera bultzatzeko antolatu da. Jardunaldi hauen helburua hiritarren informazio-teknologietan heztea eta Internet komunikaziorako, lanerako eta aisiarako tresna gisa erabiltzea da. Kanpaina honen barrean, autobusa dabil egunotan gure herrian. Maiatzaren 3an, asteartean Lesakan izan zen, maiatzaren 4an Beran izan zen eta maiatzaren 5 eta 6an Elizondoko frontoiaren aitzinean izanen da, 9:00etatik 21:00etara.

### Nagusiweb ikastaroa Eltxalarren

Etxalarko Kultur Etxeak Nagusiweb izenoko informatika ikastaro berezia antolatu du pertsona helduentzat. Maiatzaren 23tik 27ra, 16etatik 18etara eginen den ikastaroan, ordenagailuaren erabilera, Internet eta posta elektronikoa emanen dira. Izen emateko 948 635 386 telefonora deitu eta 25 euro ordaindu behar dira.



# EZKONTZAK

**Fausto Esteban Prieto Irazoki** eta **Maria Jose Etxarte Antsizar**, Bera eta Lesakakoa Igantzin, otsailaren 21ean.
**Nabil Khaldi** eta **Estibalitz Pierola Altzugarai**, Drean-el-Taref (Argelia) eta Irungoa, Beran, apirilaren 23an.
**Juan Tomas Etxabide Lasaga** eta **Miren Nekane Olazabal Tapia**, Lesakakoak, apirilaren 16an.
**Rafael Leitza Etxandi** eta **Maria Muskilda Eseberri Azkoiti**, Elizondokoak, apirilaren 16an.
**Roberto Goñi Arrupea** eta **Maria Jose Bidegain Otxandorena**, Lekaroz eta Elizondokoa, apirilaren 23an.



# SORTZEAK

**Ane Irigoien Ibañez**, Sunbillakoa, apirilaren 13an.
**Eñaut Laka Mitxelena**, Igantzikoa, urtarrilaren 22an.
**Naiara Sein Lizardi**, Igantzikoa, urtarrilaren 26an.
**Andoni Eugi Mendizabal**, Igantzikoa, apirilaren 1ean.
**Asier Montero Arrizurieta**, Leitzakoa, apirilaren 8an.
**Garazi Mariñelarena Erratzu**, Leitzakoa, apirilaren 17an.
**Eneko Gimenez Jimenez**, Berakoa, apirilaren 14an.
**Jonan Migelena Mariezkurrena**, Lesakakoa, martxoaren 31n.
**Ihintza Lekuona Olartzabal**, Lesakakoa, apirilaren 14an.
**Markel Erkizia Konde**, Lesakakoa, apirilaren 22an.
**Jon Apeztegia Larralde**, Lesakakoa, apirilaren 15ean.
**Maite Ustarroz Altzuarte**, Oronoz-Mugairikoa, apirilaren 15ean.
**Eloise Acala**, Sarakoa, apirilaren 4an.



# HERIOTZAK

**Josefa Zozaia Ibarra**, Sunbillakoa, apirilaren 15ean, 86 urte.
**Luis Lukanbio Maiz**, Arantzakoa, apirilaren 17an, 88 urte.
**Antonio Arroabarren Maritorena**, Berroetakoa, apirilaren 17an, 78 urte.
**Teresa Errandonea Altzuguren**, Berakoa, apirilaren 18an, 78 urte.
**Carmen Etxepare Estebekorena**, Urdazubikoa, apirilaren 18an, 86 urte.
**Tomas Ruiz Arbonies**, Elizondokoa, apirilaren 19an, 79 urte.
**Kasiano Susperregi Otxoteko**, Lesakakoa, apirilaren 24an, 90 urte.
**Maria Iturbide Goikoetxea**, Berakoa, apirilaren 25ean, 89 urte.
**Pierrette Goyenetche**, Sarakoa, 85 urte.



**Ceferino**
**ALMANDOZ MITXELENA**

*Atautxi, ematen zenigun poza,*
*zure bromekin, lehengo istoriekin,*
*inork ez digu hori kenduko,*
*zure irriaz, hitzez, kantuz,*
*oroituko gara beti.*
*Zure ondoan pasatu ditugun*
*momentu guztiak, den-denak,*
*gure artean geldituko dire,*
*Beti gure bihotzean*
*eramango zaitugu, Atautxi.*

**Une larri hauetan gure ondoan egon zareten eta hare aldeko elizkizunetan parte hartu duzuen guziei, MILA ESKER!**

**ZURE FAMILIA**



**Ceferino**
**ALMANDOZ MITXELENA**
**Arantzako «Cooperativa Javier»-ko lehendakaria**

*Eskerrik asko,*
*Zuk erakutsitako bidean*
*jarraituko dugu.*

**JUNTAKO LAGUNAK ETA BEZEROAK**



**Kasiano**
**SUSPERREGI OTXOTEKO**
**(Kandida Otxotekoren alarguna)**
**Lesakan hil zen 2005eko apirilaren 24an, 90 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.**

*Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzuen guziei, mila esker.*

**ZURE FAMILIA**

ATLETISMOA

# Fernando Etxegaraik irabazi zuen Berako I. Mendi Maratoi Erdia

248 korrikalarik aurre egin zioten eguraldiari eta ibilbide gogorrari

A.A.

Berako Agerra Mendi Taldeak, Larun Mendi Taldeak, Gure Txokoa elkarteak eta udal kirol batzordeak antolatuta Berako I. Mendi Maratoi Erdia egin zen apirilaren 17an. Antolatzaileek, hasiera batean gehienez 150 lagunendako lekua izanen zela aipatu baldin bazen ere, eskari handia ikusita 200era igo zen kopuru hori eta azkenean, igandeko eguraldi kaxkarrari aitzin eginez, 248 izan ziren dortsalarekin parte hartu zuten korrikalariak. Horrelaz gain, dortsalik gabe ere hainbat lagunek osatu zuten proba. Irteera goizeko 9:30etan eman zen Toki-Ona kiroldegian eta partehartzaileek 21,097 kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten, %10 errepidez, % 45 mendi pistaz eta %45 mendi bidexketatik. Guzira 1.215 metro goiti eta 1.110 metro beheiti egin behar izan zituzten. Beratik abiatuta, Manttale, Ibardin, Landagaineta, Larun eta Landagainetan barna berriz ere Berara itzuli ziren kirolariak.



ARGAZKIA: L.P.

Fernando Etxegarai beratarra proba akautu ondotik eta podiumeko goitiko koxkan, Alicia Romero, Joxe Mendiola eta Iñaki Mendozarekin batera.



Horien artean lehendabizikoa Hiru Herri taldean ari den Fernando Etxegarai beratarra izan zen, ibilaldia ordubete 44 minutu eta 33 segundutan osatu ondotik. Bigarren postua Joxe Mendiolarentzat izan zen, (1h 47'44") eta hirugarrena Arkaitz Zamakolarentzat (1h 51' 11"). Josu Luis Loiarte beratarra bederatzigarren izan zen, Xabier Zubieta beratarra hamargarren eta Patxi Irazoki igantziarra hamekagarren.

Emakumeen artean Alicia Romero izan zen irabazlea, ibilbidea bi ordu, 15 minutu eta 12 segundutan egin ondoren eta bigarren postua Nerea Amilibiarentzat izan zen (2h 20' 58"). Gizonezkoen beterano mailan Iñaki Mendoza izan zen irabazlea ordubete, 55 minutu eta 54 segunduko denborarekin. Juan Carlos Kortak (2h 01' 59") eta Luis Urrusolak (2h 02' 41") osatu zuten podiuma. Emakumezkoen beterano mailan, Antonia Gil izan zen irabazlea 2 ordu 38 minutu eta 28 segunduko denborarekin, Karmele Isuzkizaren aitzinetik. Hobnek 3 ordu 09 minutu eta 08 segundu behar izan zituen ibilbidea osatzeko.

Lasterka egiteaz gain, antolatzaileek mendi ibilaldia antolatu zuten Usategietara, nahi zuenak proba pasatzen ikusteko. Usategietan pasatzen ikusi ondotik, berriz ere kiroldegi aitzinera itzuli ziren, helmuga ikustera.

Antolatzaileak hagitz gustora daude lehendabiziko proba honek izandako arrakastarekin eta heldu den urtean berriz ere prestatzeko asmoa dute. Luis Mari Pikabeak adierazi digunez, Euskadiko Koparen egitarauaren barnean saiatuko dira, nolabaiteko ofizialtasuna emateko probari.

## Lesakako XI. Herri Lasterketa maiatzaren 22an

Maiatzaren 22an eginen da Lesakako Batzoki Elkarteak hamekagarren aldiz antolatutako Rafa Maritxalar Herri Lasterketa. Goizeko 10:00etan aurrebenjamin mailako nesketatik hasita hainbat proba izanen dira. 10:15etan aurrebenjamin mutikoak arituko dira; 10:30etan benjamin neskak; 10:45etan benjamin mutikoak, 11:00etan alebin neskak; 11:15etan alebin mutikoak eta 11:30etan infantil mailako neska-mutikoak aterako dira. Proba hauetako hiru lehenbizikoek beraien sariak izanen dituzte. Proba nagusia hasi baino lehen, haur ttikienek 250 metroko laisterketa eginen dute, baina antolatzaileek ez dute sailkapenik eginen eta sariak denentzat izanen dira. 12:00etan hasiko da proba nagusia. Bertan adin guzietako ezinduek, kadete, jubenil, junior, senior eta beterano mailako gizon eta emakumeek hartuko dute parte. Maila nagusietako gizonek 8 kilometroko ibilbidea egin beharko dute eta emakumeek 6 kilometrokoa, junior mailako neska-mutilek eta jubenil mailako mutikoek bezala. Neska jubenilek eta mutiko kadeteek 4 kilometro eginen dituzte.

MENDI DUATLOIA

# Martikoren Green Cup taldea Munduko txapeldun Argentinan

Mitxel Aginaga narbartearra bosgarren izan zen





Utzitako argazkiak

**Goitiko argazkian, Green Cup-Martiko taldeko kirolariak ageri dira, gustora lortutako sari eta dominekin. Beheitian, Patagoniako probaren mendi bizikletako tartearen irurdi bat.**

A.A.

Apirilaren 10ean jokatu zen Argentinan, Patagoniako San Martin de los Andes hirian, Munduko mendi Duatloi Green Cup txapelketa. Bertan, Green Cup-España Martiko taldearen izenean parte hartu zuen Mitxel Aginaga narbartearrak meritu handiko bosgarren postua eskuratu zuen, 180 partehartzaileren artean. Ez zen Green-Cup Martiko taldearen arrakastarik handiena izan, talde honetako Santi Arnések eta Fernando Ricak eskuratu baitzuten lehendabiziko eta bigarren postua, Munduko txapeldun eta azpitxapeldun izanik. Kataluniako selekzioko Victor del Corralek osatu zuen podiuma. Laugarren postua, Argentinako Ricardo Kurruinkak eskuratu zuen. Mitxel Aginagaren gibeletik, Kataluniako selekzioko Joan Freixak seigarren postua lortu zuen eta Green Cup-Martiko taldeko Marco Cuesta bederatzigarren izan zen. Partehartzaileek 7,3 kilometro laisterka, 30 kilometro mendi bizikletan (tartean 4 eta 10 kilometroko portuak igoz 640 metrotik 1.450 metroko altueraraino) eta azkeneko 7,6 kilometroak berriz ere laisterka egin behar izan zituzten.

Emakumeen artean ere, Green-Cup España Martiko taldeko kirolari bat izan zen irabazle eta Munduko txapeldun, Yolanda Magallón.

Taldekako sailkapenean, talde bakoitzeko hiru lehenbizikoek puntuatzen zutenez, Green Cup-Martiko izan zen irabazle, Argentinako Valle de Montaña-Neuquen taldearen eta Kataluniako selekzioaren aitzinetik.



## Mitxel AGINAGA *Narbarteko kirolaria*

## *"Taldeak izugarrizko arrakasta izan du, kategoria guzietan txapeldun baigara"*

**Espero zenuten honelako emaitzarik Munduko txapelketan?**
Lehenbiziko aldia zen Green Cupeko Munduko txapelketa egiten zela eta ez genekien nola erantzunen genuen. Ni arras gustora nago bosgarren postuarekin, baina mutiletan lehen eta bigarren postua lortu dugu, emakumeen lehen postua, taldeka lehen postua...

**Orai errepideko duatloietan ari zara?**
Bai, apirilaren 24an Espainiako txapelketan parte hartu nuen Albaceten eta maiatzean ere errepidean antuko naiz. Mendiko denboraldia neguan da.

# AGENDA egunez egun

## KONTZERTUAK

### ELIZONDO

**Maiatzaren 13an** P.J. Kraker taldea Lur diskotekan, 0:00etan.
**Maiatzaren 20an** Wichita taldea Lur diskotekan, 23:00etan.
**Maiatzaren 21ean** Koma eta Eko4 taldeak Lur diskotekan, 0:00etan.

### SARA

**Maiatzaren 7an** Herri Urrats bezperako kontzertua antolatu du Sarako Gaztetxeak plazan: Psykup (Frantzia), Superbutt (Hungaria) eta Euskal Herriko Gaubele eta Mak taldeak. Animazioa bertsolarien eta Mukaki Soun System-en eskutik.

### SUNBILLA

**Maiatzaren 8an** Ereintza abesbatzaren emanaldia izanen da 11etan elizan, Udaberriko Biraren barnean.

### BERA

**Maiatzaren 14an** Bortzirietako Euskaltegiko XV. urteurrena ospatzeko kontzertua Kultur Etxean, 20:00etan: Xabier Montoia, Morau, Petti, Joseba Irazoki, Mikel eta Joseba (Ameba), Gaizka Sarasola eta Xabier Erkizia, Edu Zelaieta, Raul Garzia eta Beñardo Goietxe (Mugaldekoak).

### LESAKA

**Maiatzaren 7an** Musika Banden II. Alardea.
**Maiatzaren 20an** akordeoi bandaren kontzertua, Salbador madariagak zuzendua, 20:00etan Alhondigan.

## DANTZA

### BERA

**Maiatzaren 7an** Carmen Roche balletaren «Romeo y Julieta» Kultur Etxean 20:00etan, Escena dantza jaialdiaren barnean.

## TELEBISTAKO TXOKOA



ORTZIRAL HONETAKO ERREPORTAIAN

# Estitxu Fernandezekin Ttipi-ttapa Telebistan

Aurkezpen gutti behar du argazkiko lesakar pertxentak. Ezagutu, denek ezagutuko duzue eta aunitzeri gainera, ilunabarrero eginen dizue etxera bisita orain aurkezten duen saioarekin, Bertatik Bertararekin. Dudarik gabe, telebistako aurpegi ezagunenetakoa da Estitxu Fernandezena.

Piskologia ikasketak burutu bazituen ere, gure telebistako lehenbiziko aurkezlea izan zen Estitxu. «Gabon ikusentzuleak, ongi etorriak Ttipi-ttapa Telebistara» erranez inauguratu zuen 1998ko ekainaren 15ean Ttipi-ttapa Telebista. Behin baino gehiagotan erran duen bezala, kasualitatez sartu zen mundu honetan eta urte batzuz psikologo lanarekin uztartu bazuen ere, lanbide hori baztertu eta telebistan murgildu zen burubelarri. Ordutik lan aunitz, eta hagitz desberdinak, egin ditu pantaila ttikian. Lan horiez guziez eta bertze hainbat kontuz solastuko da ortziral honetan Joseba Olagarai kazetariarekin. Lesakako xoko desberdinetan grabatutako elkarrizketa batean luze eta zabal ariko da bere telebistako «abenturaz». Ttipi-ttapako bere lehen saioak ikusiko ditugu eta hitz eta irudien bidez Estitxu hobekixiago ezagutuko dugu. Ez galdu, ortziral honetan, ttipi-ttapa Telebistan.

## DISKAK



*«Azken jazzbana»*

**LAJA, EGUREN eta ZIOLAR**

*ELKAR, 2005*

1950. hamarkadatik aitzinera, jazzbanaren presentziak festaren giroa berotu zuen, akordeoia, bateria eta saxofoiaren uztarketak melodia zein erritmotan ugaritzea bideratzea baitzuten eta honen ondorioz errepertorioa ere aberatsagoa suertatzen zen. Gure inguru hurbilean, Pedro Sodupe «Gelatxo» eta Karianoren jazbanak izan dira ezagunenak. Iñaki Garmendia «Laja» eskusoinuan, Enrique Eguren saxofoian eta Jose Makazaga «Ziolar» bateran (azken biek Gelatxo taldean urte aunitz igaro dutenak), tradizio musikal honen oinordeko zuzenak ditugu. «Azken jazzbana» euren lehen disko honetan, belusazko 21 pieza dantzagarriz osatutako lore sorta eguzkitsua dakarkigute: fandango, arin-arin, pasodoble, rumba, vals, ranchera, fox, boleroak… une zoragarrien testigu.

## BASERRIA

Datu Iturria: **Nafarroako Gobernua**
(Apirilaren 15etik 22ra bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): 31,50 € (-4,00)

**Zerri gizena**
1,025 € kiloa (-0,030)

**Zerramak:**
0,480 € Kg/bizirik (-0,040)

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3, 60 (+0,03)
**1.koa** 3,40 (+0,03)
**2.koa** 3,27 (+0,03)
**Urruxak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,70 (+0,03)
**1.koa** 3,52 (+0,02)
**2.koa** 3,34 (+0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Aretze mestizoak:**
urruxak 228,00 (=)
idixkoak 246,00 (=)

**Aretze nabarrak:**
urruxak 180,00 (=)
idixkoak 208,00 (=)
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 2,98/3,04
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 5,30 / 5,50
8-10 kilokoak: 4,20 / 4,70

## JAKIN BEHARREKOAK

# Zure seme-alabek jokuetan galtzea onartzen ez dutenean

Irabazi edo galdu, jolasean pasatutako une politak gogorarazi



Artxiboa

**Nahitaez irabaztera behartuz gero, haurrak ez dira zoriontsu izanen.**

4 eta 6 urte artean dutenean hasten dira haurrak taldean eta arauekin jolasten. Honela hasten dira konpetizio jokuetan: denek irabazi nahi dute eta galduz gero aunitz haserretzen dira. Galtzen duenean zuen seme-alabak hain gaizki ez pasatzeko zenbait gauza kontuan hartu behar dira:

• Adibide ona eman behar diozue. Zuek galtzaile txarrak baldin bazarete, bera ere hala izatea logikoa da.

• Galtzeagatik haserretzen bada, ez erretarik egin. Irabazteko zer egin behar zuen azaldu behar zaio, bertzerik ez.

• Arauak jartzen ditugunean, haurrak ulertu dituela segurtatu. Batzuetan haurrak ez daki ongi zer egin behar duen irabazteko edo ez galtzeko eta urduri jartzen da.

• Oroitarazi ezin duela tranparik egin irabazteko.

• Irabazi edo galdu, elkarrekin jolasten pasatu duzuen tartea hagitz polita izan dela erran behin eta berriz.

• Galtzea ez dela txarra ikusarazi: horrek hurrengoan hobetzera motibatzen du, orain sufritzen duen frustrazio ttikiak eta aitzinera begira aurkituko dituen zailtasunak onartzen joateko prestatzen du.

• Zure seme-alabei gogorarazi bere buruarekin ongi sentitzeko ez dela gauza guzietan onena izan behar eta galtzea ez dela porrota, hobetzeko aukera baizik. Galtzeko aukerarik ematen ez dion jarrera perfekzionistarik ez daman tendu behar. Hori zuzendu behar den jarrera okerra eta kaltegarria da.

**Rakel AMIGO**
**Bortzirietako Giz. Zerb.**

## ALDIZKARIAK




**EUSKAL HERRIA**

*15. zbkia, 2005eko apirila-maiatza*

Bi hilabetetik behin argitaratzen den Euskal Herria aldizkariak, mendi ertzetako ibilaldiak proposatzen ditu aldizkari honetan. Tartean, Izpegi gainetik hasi eta Iparla gaindituz Bidarraira ailegatzen dena. Mendi kaxkoetatik lurraren erraietara ere eramaten gaitu, historiaurrean lezeetan nola bizi ziren erakutsiz eta Euskal Herriko lezeetara bisitak proposatuz. Tartean, Sara, Urdazubi, Alkerdi, Berroberria eta Zugarramurdiko lezeak aipatzen ditu. Mendietara itzuliz, Euskal Herriko mendirik garaienetik, Hiru Erregeen Mahaitik ikuspegi panoramikoa ageri da eta bertara ailegatzeko bortz ibilbideri buruzko xehetasunak azaltzen ditu aldizkariak. Bertze artikulu interesgarriak ere badaude: gure kostaldeetan barna dabiltzan itsasontzi ttikiak, arriskuan dugun fauna, Gorbeiaren magalean dagoen Orozko bailarari buruzko erreportaia eta Vietnam-eri buruzkoa, erraterako.

# AGENDA egunez egun

### BESTAK

**IRURITA**

**Maiatzaren 4tik 8ra** Salbatore bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

**URDAZUBI**

**Maiatzaren 4tik 8ra** Salbatore bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

**SENPERE**

**Maiatzaren 8an** Herri Urrats, Seaska Iparraldeko Ikastolen Elkartearen alde.

### MENDI ATERALDIAK

**BAZTAN**

**Maiatzaren 8an** Herri Urratsera ateraldia eginen dute Baztango Mendigoizaleek.
**Maiatzaren 15ean** Adartzara ateraldia eginen dute Baztango Mendigoizaleek.

**ZUGARRAMURDI**

**Maiatzaren 8an** Zortzi Milak ateraldia eginen du Atxuna mendi taldeak.

### ANTZERKIA

**NARBARTE**

**Maiatzaren 15ean** La Banda taldearen «La Banda» antzeziana ikusgai 12etatik aitzinera plazan, Udaberriko Biraren barnean.

**DONAMARIA**

**Maiatzaren 22an** Panta Rhei Producciones taldearen «Txaribari» euskarazko antzeziana ikusgai frontoian, 17:30etan, Udaberriko Biraren barnean.

**URDAZUBI**

**Maiatzaren 22an** La Banda taldearen «La Banda» antzeziana ikusgai 12:30etan frontoian, Udaberriko Biraren barnean.

**BERA**

**Maiatzaren 5-6 eta 18-19an** Mugaz Gain Antzerki Jaialdia Kultur Etxean.

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

# MERKATU TTIKIA

00-34 948 63 54 58

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak

**ADOS**

• ELIZONDO. - 2. eskuko pisuak salgai. - Eraikuntza berriko pisuak salgai. - 1.100 m² dituen bordako baserria etxea salgai.
• DONEZTEBE. - Eraikuntza berriko eta 2. eskuko pisuak salgai. - Lokal komertzial pare bat salgai eta errentan emateko.
• BERA. - Pisu pare bat salgai. - Terrenoak erosten dira.
• LESAKA. - Erreformatzeko dagoen baserria lur eremuarekin salgai. - Bertzeko pisua dagoen pisu ederra salgai.
• BAZTAN. - Etxebizitzen ... 7 apartamentu salgai.
BAZTAN-BIDASOAN baserri, borda, etxeak, pisuak eta lur eremuak salgai.
948 451 941 / 948580706 / 657 978 494
ados@ados-inmobiliaria.com

## GARAJEAK/LOKALAK
### 107 Saldu

**LESAKA.** 65 m²ko lokal komertziala salgai. ☎ 627 763163.

**LESAKA.** Garaje komertziala saldu edo errentan emanen nuke, Albistur 55-F. ☎ 666 408849 (gauez).

## GARAJEAK/LOKALAK
### 109 Errentan eman

**BERA.** Garajea errentan ematen da, Barako Posta etxe ondoan, behean. ☎ 948 630881 (ilunabarretan).

## LURRAK/ORUBEAK
### 112 Salgai

**LESAKA.** Lurra salgai bi etxe egiteko. Herri ondoan, bistak herrira. ☎ 948 637934 edo 650 259605.

**LESAKA.** Nabaz auzoan 7.400 m²ko lur-eremua salgai, bi etxe egiteko aukera ematen duena. ☎ 618 962596.

## LURRAK/ORUBEAK
### 113 Erosi

Terrenoak erosten dira. ☎ 690 621836.

## ZERBITZUAK
### 208 Bertzelakoak

**ADOS BAZTAN ZERBITZU ANITZAK**

Hurbildu zaitez ADOS BAZTAN ZERBITZU ANITZAK bulegora eta igeltseroa, zurgina, fontanieroa, elektrizista, pintorea... edo nahi duzun erreformaren aurrekontua prestatuko dizugu inolako konpromisurik gabe.

Etxea pintatu behar baduzu, komuna erreformatu behar baduzu, aseguruak etxean izan duzun kaltearen kargu egiten bada eta profesionalen bat behar baduzu, etorri ADOS BAZTAN ZERBITZU ANITZAKera.

ELIZONDO • Santiago 47 • 948 580705
DONEZTEBE • Santa Lucia Plaza Juanitarena etxea • 948 451941

**Osasunbidea.** Bete behar dir: 126 erizain, 15 fisioterapeuta, 14 langile sozial, 16 laborategiko teknikari, 14 izpi-teknikari, 65 erizain-laguntzaile, 57 zaintzaile, 37 zeladore. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Sukalde laguntzaileak**, sukaldariak, 25 lanpostu libre Osasunbiderako, 36 ikastetxe eta erresidentzietarako. Informa zaitez. ☎ 948 199596.

**Elbarri fisikoak.** Lanpostu libreak gidari, atezain, lorezain, jagole edo zeladoreak. Lanpostu erreserbatuak erakunde publikoetan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Peoiak.** Abuztu sartzeko Burlata, Miranda Arga, Lizarra, Torres del Rio, Barañain eta Iruñan. Eskolaratze Ziurtagiritik aurrera. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Zaindariak.** Lanpostu libreak: Museo, liburutegi, eraikuntza publikoak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Haur zaintzaileak behar dira.** Puerikultura, haurtzaindegia, hezitzaileak. Lanpos-

**Lan bila zabiltza?**

LAN ESKAINTZA

OSASUNBIDEA
Bete behar dir:
- 126 erizain.
- 15 fisioterapeuta
- 14 langile sozial
- 16 laborategiko teknikari.
- 14 izpi-teknikari.
- 65 erizain-laguntzaile
- 57 zaintzaile
- 37 zeladore.

PEOIAK
Eskolaratze Ziurtagiritik hasita:
- Burlata
- Miranda de Arga
- Lizarra
- Torres del Rio
- Barañain
- Iruña

LAN ESKAINTZA

ELBARRI FISIKOAK
Lanpostu libreak:
- Gidariak
- Atezainak
- Lorezainak
- Jagole edo zeladoreak
- Lanpostu erreserbatuak erakunde publikoetan

SUKALDARIAK SUKALDE LAGUNTZAILEAK
- 25 lanpostu libre Osasunbiderako.
- 36 Ikastetxe, erresidentzietarako.

Presta zaitez. Informazioa dohan.
948 199 596

tu libreak haurtzaindegi publikoetan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Erresidentziatan lan egin.** Hirugarren adineko zentroetan, ospital publikoetan zeladore postuan, erizain laguntzaileak, fisioterapeutak, pinbeak. Lanpostu libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Gidariak** Abudo sartzeko: udalebetan. Nafarroako Gobernuan eta Foru Administrazioan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Administrari laguntzaileak behar dira.** Abudo sartzeko Osasunbidea, udalebetan, Derioz, Fitero, Burlata, Berrioplano, Iruña. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Garbitzaileak**. Abudo sartzeko ikastetxe, erresidentziatan. Lanpostu libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

## MOTORRA

### 501 Salerosketak

**Peugeot 306aren thunder-a eta Koni suspentsioa** salgai, egoera onean. Biak 300 euro. ☎ 637 181976.

**Suzuki Vitara** salgai, gasolinakoa, SS-AL matrikuladuna. 96.000 km. ☎ 677 504892.

**Gas-Gas 280 TXT Pro** trialeko motoa salgai. Oso gutxi ibilia. Prezioa negoziagarria. ☎ 948 450644 edo 646 702383.

**Peugeot Figit** 100cc scooter-a salgai, ez erabiltzeagatik. 5.170 km, berria bezala. 2000. urtekoa, gorria, extrakin. 1.200 euro. ☎ 948 631015 (atal ordutan).

MENDAUR MOTOR
Bigarren eskuko kotxeak:
SUZUKIAK ETA VITARAK ALKERAN

TALLERES SANTESTEBAN
DONEZTEBE
KOTXE IA BERRIEN SALMENTA
(6-18 HILABETEKOAK)
CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE, SEDAN, MEGANE GRAND TOUR

SAMPI ARAGON
ZOANSA
Lur orotariko ibilgailuak (4x4), furgonetak eta autoak erosten ditugu.
Eskura ordaintzen dugu

## ANIMALIAK

### 601 Emateko

**Pointer** arrazako zakurkumeak opari emateko. ☎ 676 434624.

## DENETARIK

### 701 Galdu-aurkituak

**BERA.** Mutiko baten zamarra galdu da, urdina eta grisa. Topatu duenak itzuli dezala, mesedez, Berako kiroldegian.

**BERA.** Shimano Executive mendi bizikleta urdina Matzada futbol zelaian dago aspaldian.

## DENETARIK

### 702 Salerosketak

**Bonbardinoa** erosiko genuke, fanfarro bat egiteko. ☎ 659 119904.

Bota dugun etxe bateko **bekin harriak eta pareta harriak** salgai, erdi prezioan. ☎ 620 529481.

**Soropil-mozteko makina** salgai, Viking MB555, 6 zaldikoa. ☎ 618 123145 edo 948 631422.

## DENETARIK

### 703 Bertzelakoak

**Sokatirako** argazkiak lortu nahi nituzke, partikularrenak, 1900 hamarkadakoak. ☎ 636 160711.

2005eko
**telefono gida**
prestatzen ari gara

Zure datuak
zuzentzeko
edo publizitatea
kontratatzeko
deitu **948 63 54 58**
telefonora



# KULTURKARI
PUBLIZITATEA • ZERBITZUAK

Publizitatea prentsan, irratian eta telebistan.

Publizitate kanpainen antolaketa eta gestioa.

DISEINU ETA PUBLIZITATEAN, ZERBITZU INTEGRALA




LIBURUAK




ALDIZKARIAK




BUZOIRATZEKOAK






FOILETOAK

**KULTURKARI**
PUBLIZITATEA • ZERBITZUAK

**ANDUTZETA 12 • 31760 ETXALAR • (0034) 948 635 458 • kulturkari@ttipi.net**

# U K G U R TX N

M I TZ K1 , L RUN T
R U T TER IET TIK URRER

# SK

DJ GONBIDATUAK

+

GO-GOAK

+

MEZUAK ELKARTRUKATZEKO PANTAILA

## MUSIKA ETA DIBERTSIOA GOGOZ

# AUPAAAA

TX
NEZTE E
EN K

h, r tx n l h n h rtu zur tr x

r AMEZTIA s r

BIXEN OSTATUA

EL C FE

T I T I

I r INTZI